

ELGOIBAR

1346 - 1914 - 2014

Etengabeko eraldaketa baten historia



Makina-erremintaren historia laburra



ELGOIBARKO
UDALA

AFM Advanced
Manufacturing
Technologies

Asociación Española de Fabricantes
de Máquinas-herramienta, Accesorios,
Componentes y Herramientas

ELGOIBAR

Makina-erremintaren historia laburra
1346 - 1914 - 2014

Pedro Andonegi - Peio Arrieta

Elgoibarko makina-erremintaren historiazaleak



ESKERRAK

- EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
- ALCORTA FORGING GROUP - AVIA - DANOBAT GROUP - EGILE CORPORATION - ETXE-TAR - EVE Ente Vasco de la Energía - GORATU - GRUPO SCHAEFFLER-INA - GRUPO SPRI - GRUPO ULMA - IMH Instituto de Máquina-Herramienta - KUTXABANK - MUSEOAREN LAGUNAK

Burdingintzatik, olagintzara, forjagintzara, galdaketara, erremintagintzara, armagintzara, josteko makinara, makina-erremintara, ingeniariartzara, manufaktura aurreratura. Pertsoneri esker lortu den eraldaketa hau, pertsonen ahaleginari, sustraiei, inplikazioari, ezagutzari eta gaitasunari esker izan da. Eta mundu osoan lagunak eginez eta Elgoibarko herriaren izena gorai patuz lortu da hau guztia.

Eredugarri garai zail hauean. Ondo egindako lanaren erakusgarri, urrats sendoekin, pertsonen trebetasunari eta konpromisoeri esker, erronkak eta zailtasunak gaindituz.

XX. mendearen hasieran modernitatearen atarira eraman gintuzten gizon eta emakume haiek harro egon daitezke Elgoibar, gaur egungo herria nolakoa den eta gaur egungo premietara egokitzeko zer nolako gaitasuna izan duen ikusita.

Liburu honen bitartez, Elgoibarko Udalak, elgoibartar bakoitzaren ekarpen emankorra eta lagungarri izan ditugun adiskide guztiak gorai patzea nahi du.

Oraina ulertu eta gure etorkizuna landu ahal izateko, gure iragana ezagutzeak duen garrantziaz jakitun izan behar dugu. Udal aldizkariaren azken hiru zenbakietan gure industriaren historia azaltzen saiatu gara. Pertsonen duten garrantzia azpimarratu eta aitortzeko ahalegina egin dugu. Geu gara iragana eta oraina; geu, gure etorkizunaren protagonista bakarrak.

Gizarteko zutabeak sendotu behar ditugu gazteek aukerak izan dezaten.

Gure industria, herriko ekonomiaren oinarria eta zutabe nagusia, enpresa, produktua, ... bakoitzarenak izango balira bezala sentitu behar ditugu. Honi esker, herritarrek eskatzen dituzten kalitatezko zerbitzuez gozaten jarraitzeko oinarria sendotuko dugu. Baina industriaren norabidea etengabe berrikusi eta zehaztu behar da. Ekoizten ditugun produktuen eta beharrezkoa den jakituraren jabe izan behar dugu; eta gainera, produktu horiek saltzen jakin behar dugu. Salmenta fa-seak eta saldu aurreko nahiz ondorengo faseek ere bezeroekiko harremanak mimatzeko aukera eman behar digute. Eman egin behar da jasotzeko. Bezeroa lagun baldin badugu, dena partekatu behar dugu; eta etxean egongo balitz bezala sentitu behar da gure artean.

Hezkuntza eta prestakuntzaren bidez, pertsonok izan ditzakegun jarrera eta inplikazioa gehituz, jakintza eta eskarmentua landuko ditugu. Hauek oinarritzko zutabeak dira Elgoibarko herriak etorkizun onuragarria izan dezan.

Alfredo Etxeberria Murua

Elgoibarko Alkatea

ATARIKOA

Makina-erremintaren historia idazteak makina-erremintaren mendeurrenarekin izan du lotura. Izan ere, 1914an sortu zuten enpresa Jose Leon Ziaranek eta Eulogio Estartak, eta data hau eta ekintzaile hauek hartu ditugu kontuan ospakizun honetarako, jakin arren, Elgoibarren bertan ez ezik Eibarren, Erreterian, Katalunian, eta munduan ere, guk baino lehenago ekin ziotela makina-erreminta ekoizteari. Elgoibarrera etorrira, aipatu behar dugu 1898an Jose Leon Ziaranek, berak bakarrik, eta 1904an Jose Maria Mujika bere sozioarekin jardun zuela sektore honetan. Ziaran eta Estarta sozioei Ezenarro elkartu zitzairen ondoren. Ziaran, ordea, banandu egin zen bi horiengandik, eta bi horiek Estarta-Ezenarro tailerra sortu zuten, gerora urteetan zehar Elgoibarko enpresa erreferenteena izango zena 1995 arte. Enpresa handi honetan lan egindako zenbaitek dozenatik gora makina-erreminta enpresa sortu zituzten zuzenean eta, beste batzuk, zeharka, horrela, Elgoibarko sare industrialia hedatuz.

Historia laburra da “Elgoibarko Makina-Erremintaren Historiazaleak” taldeak idatzi duguna. Edozein modutan, ahaztu zitezkeen zenbait datu interesgarri jaso ditugu, eta gai honetan aditua izan zen Patxi Aldabaldetrecuren (“Makinak eta gizonak”) kontsultatu beharreko liburu garrantzitsua izan dugu aurrean. Beste iturri batzuk eta ahoz jasotako informazioa ere izan dira gure lan-tresnak. Esandakoaz gain, Karmelo Urdangarin adiskidearen bibliografia argigarria ere beti izan dugu aurrean, eta makina-erremintaren aurrekariak aztertzeko, Luis Maria Ezenarro elgoibartar historialari zenaren “Elgoibar. De las herrerías a la máquina-herramienta” liburu garrantzitsua.

Erdi arotik XX. mendearen hasiera arte gure herriaren bigarren sektorean jorratutakoa aztertu dugu: burdinolak, kanoiak, burdinsareak, erlojuak eta armak, oro har. Eta aurreko mendera arte landu zen artisau ekoizpena makina-erremintaren aurrekaria dela uste dugu, burdingintza eta honen eraldaketa dugulako Elgoibarren landu duguna zazpi mendetan, gutxienez. Behin aurrekari hauek azaldu ondoren, makina-erremintaren historia bera da liburuan zabalago aztertzen dena.

Kolektibotasuna azpimarratu nahi nuke, “Makina-Erremintaren Historiazaleak” taldeaz gain, honako adiskide hauek ere egin dizkigutelako iradokizunak eta zuzenketak: Jabier Elorza eta Elgoibarko Udaleko Euskara Zerbitzuko langileak. Eskerrik zintzoenak igortzen dizkizuet guztioi.

Azkenik, bihoa gure idatzi apal honen eskaintza, gaur egun Elgoibarren dugun makina-erremintaren industria sarea eta gainerako sektoreak ahalbidetu duten pertsona eta erakunde guztiei. Gure desioa da, mendeetan landu dugun oinarri sendo honek etorkizun oparoa eman diezagula.

Peio Arrieta Soraiz

AURKIBIDEA

MAKINA-ERREMINTA (I)	6
1. Burdinolak	6
2. Meategiak	7
3. Burdinsaregileak edo errejeroak	8
4. Erlojugileak	13
5. Kanoigintza eta Armagintza	14
MAKINA-ERREMINTA (II)	16
1939 arte. Elgoibarko makina-erremintaren lehendabiziko fabrikatzaileak	16
1940-1959. Ekintzaitasunaren urrats irmoak	19
1960-1975. Sendotze eta garapen urteak	23
MAKINA-ERREMINTA (III)	27
1976-1985. Krisi ekonomiko handia	27
1986-1990. Hazkundera makina-erremintaren arloan, 1989ko krisi urtea gorabehera	30
1991-1994. Krisia	32
1995etik 2012ra arteko testuingurua	33
Makina-erremintaren bilakaera 1995etik 2012ra arte	36



MAKINA-ERREMINTA (I)

1. BURDINOLAK

Villamayor de Marquina (Elgoibar) hiribildua 1346an sortu aurretik, Markina merindade honetan eta Mendaro bailaran baziren burdinolak. Izan ere, Gaztelako Alfonso XI. erregeak 1335ean burdinolen Forua eman zien Lasturreko, Mendaroko eta Egoko jabeei. Ziurta genezake hamasei burdinola izan zirela Elgoibarko jurisdikzioan. Hala ere, hauek guztiek ez zuten aldi berean eta erregularitasunez lan egin, eta produkzio mailan ere alde handia izan

zuten euren artean. Batzuek bizitza laburra izan zuten. Hona hemen burdinolen toponimoak: Lasalde, Gabiola, Aurteñola, Altzola, Karkizano (2) (izen ofiziala: Karkizao), Andikano (2) (izen ofiziala: Andikao), Ermua, Ibarra, Basarte, Apatriz, Zabala, Plaza, Olazarreta eta Goikoolea. Gehiago izan zitezkeen, esanguratsuak diren hainbat toponimo daude eta: Olarreta, Olazarraga eta beste...

Zenbat burdinola	Noiz	Burdinola-kopurua eta horien toponimoak	Data
7	XV. mendea	6	1771
9	1642an	6: Lasalde, Gabiola eta Aurteñola Mendaro bailaran, eta Karkizano (Karkizao) biak eta Altzola.	1812
5	1734an eta 1751an	4: Altzola, Karkizano (Karkizao) biak eta Gabiola.	1821
4 (31, Gipuzkoan)	1862an		

Elgoibarko Udalerriko 1878-1879ko zedula pertsonaletako zerrendetan ez da burdinolarik ezta burdinoletako langilerik ere azaltzen. Izan ere, 1877an, San Pedro fabrika ireki zenean (ireki eta gutxira 300 langile inguru ziren), burdinolek labe garaiei eman zieten lekukoa, nahiz eta 1881ean oraindik ere Kar-

kizano (Karkizao) burdinola martxan izan, haren jabeak errentan eman zuen-eta. Dena den, denbora gutxirako izan zen, teknologia berriek bazterrean utzi baitzituzten ohiko produkzio-erak, eta Lerungo fabrikak, Bizkaiko industrializazioaren ondorioz, langile talde handi bati lana eman baitzion.

Altzolako burdinola, Olaetxea: burdinolak, errotak, dorretxeak eta Kontzesio ermitak (ezkerraldean) osatu zuten multzoa. XIV. mendea.



2. MEATEGIAK

Elgoibarren bertan mineralak noiztik ustiari ziren ez dakigun arren, Alfonso XI.a Gaztelako erregeak Villamayor de Marquina fundatu zuenean (1346), honako hau aditzera eman zuen biztanleei zuzendutako hiri-gutunean: “*E que sean para nos mineras de oro e de plata e las ferrerías que se ficieren...*”. Bat gatzoz Beatriz Arizaga historialariarekin, esaterakoan, Erregeek urre eta zilarrezko eta gainerako meatzeak eurentzat gordetzea ez zela formulismo hutsa, izan ere, XIII. eta XIV. mendeetan Gipuzkoan sortu ziren 25 hiribilduetatik, hirutan bakarrik (Villarreal, Zestoa eta Villamayor de Marquina) aipatzen dira meategiak. Horrela, bada, Elgoibarko zorupean aurkitu izan dira mineralak, eta garai desberdinetan hainbat proiektu izan dira lehengaiak ustiatzeko asmoz.

Markinako hiribildu nagusiaren (Elgoibarko) hiri-gutunaren Juan II.a erregeak egindako berrespena. 1407. urtea. (Udal artxiboa, 73/92). 1346ko abenduaren 20an eman zien hiri-gutuna Markina eta Mendaroko gizon on, kapare eta nekazariei Alfontso XI.ak, Gaztelako erregeak. Baina, horren aurretik ere jendea bizi zen eremu honetan, modu sakabanatuan.



Noiz	Non	Mea-mota	Jabea edo Ustiatzailea
1771	Urrezulo	Kobrea	Montehermoso markesa
1887	Urrezulo	“San Ignazio” izeneko burdinki piritaren ustiaketa bukatu	Irurako M. Igiñez
1890	Munoandi errekatxoa	?	Orioko G. Altuna
1890	Sagarreko erreka	?	Azkoitiko D. Puertas
1892	?	“San Jabier”, beruna eta beste metal batzuk	J.J. Barrenetxea
1901	?	“Narru”, burdinkia	J. Albizu
1903	?	“Balego”, burdinkia	R. Nazabal

Honetaz ere esan behar dugu, Morkaiko espeleologia taldeak, San Bartolome jaietako 1978ko egitarauan, Talaia baserriaren azpian zegoen meategi baten zuloaren berri eman zuela, eta 1980ko egitarauan Talaiaakoa (60 metro luzerakoa, lubiziek ahoa itxi dute) eta Urruzunoko bat (34 metrokoa) aipatu zituela, Elgoibarko kobazulo naturalekin batera. Talaia meategi honen inguruan historiaurreko bron-

tze garaiko (2.500-800 K.a.) botozko aizkora bat aurkitu zuten elgoibartar espeleologoen, eta haien ustez, zulo hau artifiziala izateaz gain, antzinako aztarnak ere ba omen dira bertan. Edozelan ere, elgoibartarrek aspalditik Bizkaitik ekartzen zuten burdinkia, itsasoz Debaraino, eta gero Altolako ibai-porturaino.

3.

BURDINSAREGILEAK EDO ERREJEROAK

Elgoibarrek XVI. eta XVIII. mendeen artean burdinsaregile bikainak sortu zituen. Hauek familia-tradizioan oinarritu ziren, eta prestigio handiko eskola garatu zuten gure herrian. Ez da harritzekoa gure artean espezialitate horretan ere aritzea, kalitate handiko burdina lantzen zutelako burdinoletan, eta burdin hura hainbat produktu bilakatzen zutelako sutegetan: kanoiak, goldeak, denetariko erremintak,

erlojuak, burdinsareak edo errejak... Nabarmendu behar dugu artisauek, burdinsaregile gisa, katedral eta eraikin noble askotarako maisulanak egiteaz gain, armen kanoiak eta erremintak ere landu zituztela. Une bakoitzean merkatuaren eskabideari erantzun behar zioten, eta forjako teknika menperatzen zuten, hartara egokitu beharra zuten.

Mendea/urtea	Burdinsaregileak	Artelanak: burdinsareak
XVI. mendea	Marigorta Kristobal	Azpeitiko parrokiako Zurbano apezpikuaren kapera.
XVI. mendea	Marigorta Pedro	Urretxuko parrokiako pulpituua. Eltziegoko parrokiako bataiatetikiko erreja. Gasteizko Santa M ^a elizako (gero katedrala izan zena) presbiterioko errejak. Etxeetarako errejak ere egin zituen.
XVI. mendearen bukaera eta XVII. hasiera	Marigorta Pedro, seme nagusia	Zalduondoko alkatea zen Joan Lopez Heleazarragarentzako erreja bat. Bere anaiordearekin batera, Elorrioko Pero Perez Urkizurentzako sei erreja.
XVI. mendearen bukaera eta XVII. hasiera	Marigorta Pedro, seme gaztea (anaiordea)	Lekeitioko eliza nagusiko kaperaren erreja. Azkoitiko parrokiako Rekalde maiorazkoaren kapera. Mendexako elizako kaperarako erreja. Gasteizko Diego Hurtado de Mendoza kaperarako erreja. Tolosako San Frantzisko komentuko kaperarako erreja. Ondarroako parrokian, Domingo Garro komendadorearen kaperarako erreja. Bergarako Ozaeta dorretxerako errejak.
XVII. mendea	Marigorta Luis	Mutrikuko Juan Bautista Aranoren etxerako errejak.
XVII. mendea	Marigorta Santiago	Bergarako Miguel Argizainen etxerako burdinazko lau balkoi.
XVII. mendea	Betolaza Fernandez San Juan (Arabako Betolaza herrikoa, Marigorta P. semearekin ikasi zuen ofizioa)	

Mendea/urtea	Burdinsaregileak	Artelanak: burdinsareak
XVII. mendea	Betolaza Fernandez Francisco (San Juanen semea)	Arnedillo herrirako egindako balkoiak. Nafarroako Torralba del Río herriko Kodes santutegirako erreja.
XVII. mendea	Betolaza Fernandez Antonio (San Juanen semea)	Soraluzeko parrokiako elizpeko errejeria.
XVII. mendea	Betolaza Domingo (Antonioren semea)	Elorza burdinsaregileekin batera Loiolako santutegiko errejerian lan egin zuen. Donostiako Plaza Berriko Catalina Hirubiaren etxerako balkoi abalastratuak.
XVIII. mendea	Betolaza Sebastián (Antonioren biloba)	Elorza Antoniorekin eta Agirre Gregoriorekin lan egin zuen.
XVII. mendea	Ezenarro Pascual	Hondarrabirako errejak eta balkoiak. Getariako parrokiako balkoiak. Elgoibarko Kalebarren plazako Torrekua dorretxerako balkoi jarraitua. Besteen errejen aztertzaile eta ebaluatzaile ere izan zen.
XVII. mendea	Zubiaurre Ignazio	Azpeitiko parrokiako bi pulpitu.
XVII. mendea	Arrillaga Juan	Burgoseko katedraleko presbiterioko sei arkuen errejak. Elgoibarko Olaso parrokiako pulpitu eskailera eta balastradarekin. Olaso parrokiako leihoetako errejak, baranda bat eta beste lan batzuk Elorza Bartolomerekin batera. Tolosako udal etxeetarako burdinazko 38 balkoi, Ugaldeko San Juan eta Elorza Bartolomerekin batera. Horiek hirurek egin zituzten, baita ere, 19 balastrako 64 burdinazko karel, Francisco Jacobo Lizaranzu olagizon eta merkatarientzat. Legorretako Domingo Yunybarbiarentzako 10 balkoi.
XVII. mendea	Elorza Antonio	Bergarako San Pedro parrokiako pulpituko burdinazko 200 balastrak, Gasteizko Jesusen Lagundiko errektoreak eskatuta. Logroñora bidalitako balkoi eta errejak.



Elgoibarko San Bartolome parrokiako pulpituaren zatia. Antonio Elorzak egin zuen 1717an. (Argazkia: Ortega).

Mendea/urtea	Burdinsaregileak	Artelanak: burdinsareak
1648-1724	Elorza Bartolome (Antionioren semea)	<p>Segoviako katedraleko presbiterio edo kapera nagusiko hiru errejetako lehenengo zatiak. Burgoseko katedraleko Santiago kaperako sarrerako erreja. Valladolideko katedraleko San Miguel, San Jose eta San Pedro Regalado kaperetako errejak. Valladolideko San Felipe Neri elizako alboetako 6 kaperetako errejak. Madrilako El Retirorako errejak (bere seme Antoniorekin batera). Madrilako San Gil komenturako kapera batentzako erreja. Logroñoko Santa M^a de la Redonda kolegiatako (gaur egun kokatedrala) sakristia aurreko arkuarentzako erreja. Tolosako udal-etxeetarako 38 balkoi Arrillaga eta Ugalde burdinsaregileekin batera. Tuterako udaletxeko balkoi nagusia. Ordiziako Joseph Zabalaren etxeko balkoiak. Asteasuko plazako jauregiaren karelak. Gasteiz eta Arabarako hainbat balkoi-lan eta errejeria. Azpeitiko parrokiako bataiategiko erreja. Loiolako santutegian: Ikastetxeko eskailera handiko errejeriaren zatia; Kontzesio kaperako erreja; San Francisco de Borja saloiko eskaileretako eta sakristiaren aurreko eskuairako errejak, baita santu beraren kaperakoak eta elizarantz ematen duen saloikoak, eta leihoan dagoen erreja karratua ere; “Jainkoagana bihurtzearen” kaperako bi errejak eta kaperako hiru leiho (geroago beste bost leiho) eta erlikia-ontzirako errejak; Etxe santuko bederatzita leihoetako balaustreak; Behoko saloiko leihoetako balaustreak; Ostatuko (urteetara gogo-jardun etxea) eskailera nagusiko balaustrada eta esku-banda, arkupeko hiru leihoen errejak eta izkinako beste bat, hamar leihotan jarritako errejak sekzio karratukoak; Espiritualitate zentroan duela urte batzuk sarrera nagusian jarri zuten burdinazko ate balaustredunak (Santutegian gordetzen zena) Elorzatarren eskua islatzen du.</p>
XVIII. mendea	Betolaza Domingo (Elorza Bartolomeren koinatua)	Loiolako santutegiko balaustreak egiten parte hartu zuen.



Loiolako santutegiko pulpituko erreja ederra. Gregorio Agirrek egin zuen 1759an.

Mendea/urtea	Burdinsaregileak	Artelanak: burdinsareak
1680-1734	Elorza Antonio (Bartolomeren semea)	<p>Segoviako katedrala: Kapera nagusiko aurreko errejaren bigarren zatia eta goialdea, bide sakratuaren berjekin batera; San Gregorio kaperako erreja; Kanonigoen koruko eta San Anton kaperako errejak; Presbiterio edo aldare nagusiko errejaren bigarren zatia eta goialdea eta bide sakratuaren erreja; Presbiterio alboko errejen bigarren zatiak. Burgoseko katedrala: Santa Tecla kaperako lau errejak (jarri ere A. Agirrek jarri zituen). Segoviako apezpikuaren jauregirako eta hiritar batentzako balkoiak eta errejak. Beste hainbat balkoi eta erreja Madrilerako. Madrileko El Retirorako errejak (aitarekin batera). Juan Goyeneche Madrilen bizi zen euskal indiano merkatarientzako errejak (bere jabetza-koak ziren Churriguera arkitektoak diseinatu zituen Madrileko Real Academia de Bellas Artes de San Fernando eta baita “Nuevo Baztan” herriko eraikin-multzoa ere). Santo Domingo de la Calzada katedralako santuaren hilobiko erreja erdia (beste erdia Pedro de la Serna Truciosko bizkaitarrak egin zuen). Logroñoako Santa M^a de la Redonda kolegiatiko (gaur egun konkatedrala) N^a S^a de los Angeles kaperarako erreja. Alfaroko San Miguel parrokiako San Ildefonso kaperarako erreja. Calahorra katedralerako 250 burdinazko balaustre eta 22 pilastra, balaustreen moldura berdinez eginak (Aldare nagusitik kanonigoen korurainoko burdinsare bikoitza egiteko izan omen ziren). Lizarrako San Pedro Ruako parrokiako San Andres kaperarako erreja eta San Juan Bautista parrokiako burdinazko bi pulpitu. Sesmako Asuntzio Andre Mariaren parrokiako bi pulpitu. Iruñeko San Lorentzo parrokiako San Fermin kaperako erreja. Gasteizko San Frantzisko komentuko bost kaperetako errejak (bere suhia G. Agirre errejeroak jarri zituen). San Miguel markesarentzako errejak. Bergarako Del Valle kondeen etxerako errejak. Oñatiko Juan Antonio Bengoetxearen esku utzitako 80 balaustre. Lekeitioko Zubieta etxeko balkoi multzoa Joseph Iturriaga koinatua-ekin batera. Cadiz-era bidalitako balkoi eta balaustre-lanak. Eta beste zenbait balkoi-lan hainbat tokitara bidalitakoak. Donostiako San Bizente parrokiako erreja batzuk (Elorza hil ondoren Agirre suhiak bukatu zituen). Loiolako santutegian: ikastetxeko eskailera handiko errejeriaren zatia; kupularen alboetan dauden dorre bizkien gurutzeak; basilikako eskailera nagusirako barroteak eta ateak, hauetatik 6 balaustre aldare nagusiko sagraioaren atzealdean jarri ziren eta 13 Kontzezio kaperan. Azkoitiko parrokiako antzinako dorreko burdinazko gurutzea. Azkoitiko San Jose ermitako erreja. Elgoibarko Kalegoen plazako San Bartolome parrokia: burdin-lan guztiak (sakristietako leihoetako errejak, ate nagusiko lau leihoetako errejak, Errosario Andra Mariaren ganbaratxoko burdinazko ateak, artxiboko ateak, eta beste zenbait burdina) G. Agirrerekin batera egindakoak; pulpitua; koruko karela; koruko eskailerako baranda.</p>
 <p><i>(E., A. eta Z-k utzitako argazkia).</i></p> <p><i>San Bartolome parrokiako koru azpiko burdinsarea. Elgoibarko Antonio Elorza (1680-1734) kanoigile eta burdinsaregile handiak egindako zutabe salomondar ederra dugu, burdina lantzeko teknika zein estetikari dagokienez.</i></p> <p><i>Elorzak eta bere suhiak, Agirrek, Segovia eta Burgoseko katedralen zenbait burdinsare egin zituzten, besteak beste.</i></p>		

Mendea/urtea	Burdinsaregileak	Artelanak: burdinsareak
XVIII. mendea	Elorza Domingo (Bartolomeren semea)	Bere anaia Antoniorekin lan egin zuen.
XVIII. mendea	Ugalde San Juan eta Juan	Antonio Elorzarekin lan egin zuten Loiolako santutegiko errejerian, balustreak egiten.
XVIII. mendea	Iturriaga Joseph (Bartolome Elorzaren suhia)	Elorzatarrekin lan egin zuen, lehenengo Bartolome suhiarekin, eta ondoren, Antonio koinatuarekin. Antoniorekin Segoviako katedraleko bi errejen bigarren zatiak egin zituen. Cadizerako balaustre eta balkoi-lanak. Lekeitioko Zubieta etxerako 500 balaustre, Elorza koinatuarekin batera.
XVIII. mendea	Iturriaga Diego	Loiolako santutegiko errejerian lan egin zuen.
1708-1774	Agirre Gregorio (Araozen jaioa, Antonio Elorzaren suhia)	Segoviako katedrala: kapera nagusiko bigarren zatiak eta alboko errejen goialdeak; presbiterio alboko errejen bigarren zatiak bukatu zituen bere aitagarreba hil ondoren; San Cosme eta San Damian kaperako erreja; Santa Barbara kaperako erreja, San Geroteo kaperako erreja. Segoviako N ^a S ^a de la Fuencisla santutegiko kapera nagusiko erreja. Burgoseko katedraleko Santa Tecla kaperako errejak Antonio Elorzak egin zituen, eta Gregoriok jarri zituen. Gasteizko San Frantzisko komenturako bere aitagarreba A. Elorzak egindako errejak ere Gregoriok jarri zituen. Loiolako basilikan: kupula gaineko gurutze forjatua; pulpituetakoko errejak; balkoi edo tribunetakoko errejak; koruko karelaren erreja; kupulako balkoi-multzoaren erreja. Elgoibarko Kalegoen plazako San Bartolome parrokia: A. Elorzarekin batera sakristietako leihotako errejak, ate nagusiko lau leihotxoetakoko errejak, Errosario Andra Mariaren ganbaratxoko burdinazko ateak, artxiboko ateak, eta beste zenbait burdina; koruko eskaillerako balaustreak, ustez, berak egin zituen; kupularen linterna gaineko gurutzea; 1756an dorrean jarri zen erlojuaren koadrantea; dorreko burdinazko balkoia. Elgoibarko Udaltxeko errejeria: burdinazko hiru balkoiak; eskaillerako baranda.
XVIII. mendea	Agirre Antonio Bentura (Gregorioren semea)	Segoviako Fuencisla santutegiko erreja egin zuen aitarekin batera, eta beste zenbait lanetan ere parte hartu zuen. 33 urte zituela hil zen.
XVIII. mendea	Iturrioz Joseph	Gregorio Agirrerekin batera, Elgoibarko dorreko gurutzea egin zuen.
XVIII. mendea	Betolaza Sebastian, Ugalde Antonio, Sarasua Joseph eta Andonaegi Antonio	Burdinsaregile hauek, Iturriozekin batera, Segoviako errejen hitzarmenetan ageri dira, Elorza eta Agirreren fidatzaileak izan ziren.

Iturria: L.M. Ecenaroren "ELGOIBAR, de las Ferrerías a la máquina-herramienta..." liburutik jasotako datuekin Pello Arrietak egindako lauki-laburpena.

4.

ERLOJUGILEAK

Marigorta familia nabarmendu zen erlojuak egiten. Erlojuak ez ezik, beste hainbat produktu ezberdin ere egiten zituzten euren sutebietan, beti ere, merkatuaren eskabideari erantzun behar baitzioten; eta erlojugintzan ezagunagoak zirenez, burdinsareen hitzarmenetan ere erlojugile-maisuak

direla aipatzen da. Errebalean izan zuten sutegia Marigortatarrek, beste burdinsaregile eta kanoigile askok bezala. Hona hemen erlojugintzan egindako lanaren zati bat, zaila baita egindako guztia jakitea, askotan hitzarmen-eskriurak erlojua eskatzen zen herrian bertan egiten zituzten-eta.

Mendea/urtea	Erlojugileak	Artelanak: erlojuak
XVI. mendea	Marigorta Pedro	Urretxuko parrokiako erlojua konpondu zuen eta lau urtetan zaintzeko hitzarmena (1547). Elgoibarko Olaso parrokiako dorreko erlojua (1564), zaintzeko ardura izan zuten berak eta bere semeek. Arabako Markinezko erlojua (1565). Arantzazuko komentuko erlojua. Bermeoko komentuko erlojua (1567). Lizarrako elizako erlojua (1570). Asteasuko elizako erlojua (1571). Errezilgo elizako erlojua konpondu (1571). Villoradoko (Belorado?) erlojua (1578).
XVI. mendearen bukaera eta XVII. hasiera	Marigorta Pedro seme nagusia	Mendaroko Garagartzako erlojua (1580). Arabako Zalduondoko erlojua. Arabako Aranako San Vicenteren erlojua (1582).
XVI. mendearen bukaera eta XVII. hasiera	Marigorta Pedro seme gaztea	Elgoibarko herri-erlojua, Kalebarren plazako iparraldeko harresiaren gainean jarri zena (1587). Mutrikuko elizako erlojua (1588). Elgoibarko Olasoko parrokiako erloju berria (XVII. m. hasiera). Nafarroako Falceseko erlojua (1604). Amurrioko elizako erlojua (1607). Aizarnako elizako erlojua (1610). Bilboko Josulagunen ikastetxeko erlojua (1613). Aulestiko elizako erlojua (1621).
XVII. mendea	Marigorta Santiago (azken Pedoren biloba)	Garagartza, Errezil eta Elgoibarko erlojuak konpondu zituen. Portugaleteko parrokiako erlojua egin zuen.

Iturria: Pello Arrietak, L.M. Ecenaroren "ELGOIBAR de las Ferrerías a la máquina-herramienta..." liburutik, jasotako datuekin egindako lauki-laburpena.

5.


KANOIGINTZA ETA ARMAGINTZA

XIX. mendera arte erloju, burdinsare, erreminta eta kanoiak egiten zituzten sutegiek armak bakarrik egiten jarraitu zuten, kanoiak batik bat. Nabarmentzekoa da honako hau: XVIII. mendearen bigarren erdialdean Gregorio Agirrek, burdinsaregile eta armagin maisu handiak eta ospetsuak, burdina mozteko tresna eta kanoiak limatzeko makina asmatu eta sortu zuen *“a un tiempo y en un día hasta el número de 84 piezas con evidente ahorro de tiempo y de energía muscular”*. Asmakizunaren diseinua, limatutako bi kanoirekin eta zego-kion azalpenarekin igorri zioten Gerrako despatxo unibertsaleko idazkariari. Orduan, eta Antzinako Erregimenean, Elgoibarko armaginek, gainerrakoez bezala, gremio-egitura zuten, eta Soroluzeko *Real Fábrica de Armas de Placencia*ko kide izan ziren, monarkiaren menpean zegoen-eta armagintza.

Sutegi eta artisau tailer bakoitzean, maisuekin batera, zazpi edo zortzi langilek lan egiten zuten: zulatzaile, mailukari, limatzaile, matxeadore eta peoiek.

- 1642an Elgoibarrek arkabuz eta mosketeak lantzeko 11 sutegi edo tailer zeuzkan.

- 1771n fusil eta pistolen kanoiak egiteko 9 sutegi zeuden barrenatzeko tresna eta guzti. Beste tailer batzuetan, berriz, errementari maisuek aizkorak eta gainontzeko nekazaritzako lanabesak lantzen zituzten.



(Elgoibarko Makina-Erremintaren Museoa utzitako argazkia).


Flandriako Joseph Lamoten zuzendaritzapean, Jose Zamezak egindako grabatua 1757an. Garai hartako Soroluzeko Armen fabrikaren deskribapen zehatza egiteaz gain, testuinguru historikoari eta kokapen geografikoari buruzko informazioa ere ematen dute egileek.

- XVIII. mendearen bukaeran, Soroluzen, 66 maisu eta 132 ofizial *“txispero”* zeuden; Eibarren, 44 maisu *“aparejero”* beren 44 ikasleekin, eta 33 maisu kaxagile beren ikasleekin, guztira, 154 armagin. Azkenik, Elgoibarren, 13 maisu eta 104 ofizial kanoigile zeuden.

- Elgoibarko 1802ko erroldan esaten zaigu 180 gizon inguruk lan egiten zutela fabrikari, arte eta ofizioetan. 1861ean, 13 tailer Errege Fabrikako partaide ziren, eta ehunen bat gizonek lan egiten zuten.

Azken Gerra Karlista (1872-1876) bukatu ondoren, eta mendearen amaiera arte, sektore honetan krisi nabaria izan zen, Europako lehiaren eta aduanak noizean behin irekitzearen ondorioz, merkatuak uzkurtu egiten zirelako. Horrela, sutegiak eta ginballetak edo barrenak (uraren indarraren bidez kanoiak zulatzeko tresnak) ixten zituzten

tarteka-marteka. Egoera honetan, kanoigile elgoibartar bat nabarmendu behar dugu, Pedro Alejandro Atristain. Honek, 1888ko Bartzelonako Erakusketan Unibertsalean, stand bat jarri zuen, eta bertan kanoiarren lanaren faseak azaldu zituen. Halaber, urte bereko irailean, asmakizun patente bat aurkeztu zuen Londresen Atristainek, kanoiekin zerikusirik ez zuen berrikuntza teknologikoa, trenetarako balazta automatikoa, hain zuzen ere, eta Espainiako jabetza intelektualaren eta industrialaren aldizkari ofizialean erregistratu zuen abuztuaren 16an, hoguei urterako.



(K. Urdangarinek utzitako agiria).

Pedro Alejandro Atristain elgoibartar kanoigilearen asmakizunaren patentea. 1888ko irailan aurkeztu zuen Londresen. Asmakizunak ez zuen zerikusirik kanoigintzarekin, trenetarako balazta automatikoa-rekin baizik.

Aurretik, maiatzaren bukaeran, Durango-Zumarraga tren-konpainiaren administrazio kontseiluaren presidente zen Igartua jaunaren laguntza izan zuen bere proiektua esperimentatzeko.

Arestian esandakoaren haritik, 1877ko ekainaren 29an, San Pedro fabrika martxan jarri zuen Romualdo Gartzia nafar negozio-gizonak. Era berean, gogoan izan behar da honen aitagarrebak akzioak zituela Bilboko siderurgian eta, besteak beste, hortik zetorkiola sektore honetan kapitala inbertitzeko interesa. San Pedro fabrikak mendearen bukaeran ehun langileri enplegua eman arren, herri-tarren %60 inguruk baserritik bizi izaten jarraitzen zuen, eta aldiz, armagintzan jardun ohi zuten hainbat

tailer txiki zeuden, arestian esan dugun bezala, aldika, krisian murgiltzen zirenak. Lerungo enpresa berriak hasiera eman zion industrializazioari Elgoibarren, iraultza izan baitzen gure herrian, ekonomia (bigarren sektorean, batik bat) zein gizarte arloetan.

Halaber, hamar urte geroago, 1887ko irailaren 19an, Zaldibar-Elgoibar trenbidearen zatia inauguratu zutenean (Romualdo Gartzia ahalegin berezia egin zuen trena bere fabrikaraino eramateko). Industria-lizazio prozesua handitu egin zen, eta sei urte geroago, elektro-indarra martxan jarri zutenean, industria modernoaren oinarriak finkatu ziren.

Armagintzak bere bidea jarraitzen zuela ahaztu gabe, XX. mendearen hasieran, Antonio Armendia *Torlojeruaren* industria-jarduera aipatu behar da. Honek *Bulldog* errebolberrak egiteko tailerra jarri zuen martxan, eta Lehen Munduko Gerran, Turkiara esportatu zuen. Urte gutxira, 1915ean, Gabilondok, Elgoibarren, tren geltokiaren ondoan, jarri zuen tailerra, *Rubi* errebolberrak eta *Llama* pistola automatikoak egiteko lantegia. Era berean, Teodoro Alkorta ere arma luzeak (eskopetak eta zizpa motzak) egiten nabarmendu zen, eta merkatu zabala lortu zuen, gainera.



Gabilondo fabrikak egin zituen bi arma mota: Rubi eta Llama. Elgoibarren izan zen 1915etik 1965era arte, eta Gasteizera joan zen azken urte horretan.

MAKINA-ERREMINTA (II)

Garai bertsuan, armagintza ez ezik, industriaren beste espezialitate batzuk ere garatu zituzten Elgoibarko enpresa-gizon batzuek. Horietako arlo batek, makina-erremintak, berebiziko garrantzia eta indarra hartu zuen gure herrian. Makina-erremintan aitzindari izan ziren Jose Leon Ziaran 1898an (armagintzan jardun zuen aurretik), Mujika eta haren sozioak 1904an eta Eulogio Estarta eta Ziaran 1914an (elkarlanean aritu ziren, eta 1915ean Teodoro Ezenarro gehitu zitzaizen). Ziaranek, Estartak eta Ezenarrok zultzeko makinak fabrikatzeko tailerra izan zuten Maalan, Bekotorrean, eta Mujikak zerrak esmerilatzeko makinak eta sakatzeko tornuak egin zituen hasieran Arriaga auzoan. Aldabaldetrekuk esaten digunaren arabera, Jose Leonek Kubako gerran parte hartu zuen, soldaduskan zegoela, eta han ezagutu zuen Joan Caballero, donostiar abokatu. Honek lagundu omen zion Ziarani Belgikara, eta handik ekarri omen zituen zultzeko makinak fabrikatzeko planoak.

1939 arte. Elgoibarko makina-erremintaren lehendabiziko fabrikatzaileak.

Bi gertakizun nagusik nabarmen baldintzatu zituzten gure industriaren hastapenak garai honetan: Lehen Mundu Gerrak (1914-1918) eta Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939). Ondorioz, gure herriak krisia, alde batetik, eta industrien militarizazioa, bestetik, nozitu zituen, beraz, gerrarako armak eta materiala egin beharra zegoen derrigorrean. Gainera, Europarekin alderatuta, atzerapen handiarekin hasi zen gure makina-erremintaren industria, 70 urte geroago. Ordura arte, eta urte batzuk geroago ere bai, espainiar merkaturak ingelesek, alemaniarrek eta estatu batuarrek erabat hartuta zuten.

Ikus dezagun zein testuingurutan hasi zen makina-erremintaren sektorea Elgoibarren:

Honako alkate hauek izan zituen garai hartan: Pedro M^a Arrillaga, 1914an; Manuel Kintana, 1914tik-15era arte; Teodoro Alkorta, 1916tik-17ra arte; Antonio Arrillaga, 1918tik-20ra arte; Angel Arriaga, 1920tik-22ra arte; Epifanio Atxaga, 1922tik-23ra arte; Juan Mujika, 1923an; Agustin Arrizabalaga, 1923tik-24ra arte; Antonio Arrillaga, 1924tik-30era arte; Nazario Osoro, 1930etik-31ra arte; Jose Ramon Balenzategi, 1931tik-34ra arte; Luis Etxaniz, 1934tik-36ra arte; Jose Ramon Balenzategi, 1936an; Manuel Kintana, 1936an; Frantzisko Jabier Ansuategi, 1936tik-39ra; eta Kastor Arriola, 1939an. Eta ideologia hauek gailendu ziren urte hauetan: kontserbadorea, karlista, errepublikanoa eta frankismoaren aldekoa. Beraz, erregimen politiko desberdinak eman ziren: Borbondarren monarkia, honen baitako Primo de Riveraren diktadura (1923-1930), Errepublikak (1931-1936) eta Francoren diktaduraren hasiera.

Biztanleei dagokienez, 4.596, 1910ean; 4.863, 1920an; 5.329, 1930ean; 5.416 (hirigunean 2.409 eta auzoetan, 3.007), 1935ean eta 5.683, 1940an. Beraz, 30 urte eta gero, 1.087 biztanle gehiago zituen Elgoibarrek.

Udalaren aurrekontua 64.411,25 pezetakoa izan zen XX. mendearen hasieran, 185.819,94 pezetakoa 1931n eta 233.725,50 pezetakoa 1940an. San Bartolome festetako gastuak 500 pezetara ez ziren iritsi 1900 aurretik; sei bider handiagoa izan zen gastu hori, 3.082,25 pezetakoa, gerra aurreko urtean, 1935ean.



Jose Leon Ziaran Arrillaga (1876-1948)
(Elgoibarko Makina-Erremintaren
Museoak utzitako erretratua)



Jose Maria Mujika Iturzaeta (1874-1950)
(Elgoibarko Makina-Erremintaren
Museoak lagatako erretratua)



Eulogio Estarta Landa (1891-1955).
(Antonio Herrerok
lagatako erretratua)

Elgoibarren makina-erreminta ekoizten hasi aurretik, urte batzuk lehenago, Eibarren, Cruz Otxoa eta konpainiak (1895) eta Errenterian Illarramendik martxan zituzten arlo horretako tailerrak. Eibarko Armeria eskola lanbide-heziketa ematen hasi zen 1912an. Elgoibarren, berriz, Bernardo Ezenarro marrazketa (lineala, apaindurakoa eta figuratiboa) irakasten hasi zen, eta akademia ireki zuen 1899an. Horrela, Arte eta Lanbide eskola izango zenaren lehen urratsa egin zuen Udalak. 1916an ireki zuen aipatutako eskola honako irakasle hauekin: Jose Yeregi apaiza (fisika); Marino Rodriguez, (aritmetika eta geometria); Pedro Larrañaga (frantsesa eta merkataritza-praktikak); Bernardo Ezenarro (marrazketa lineala eta dekoratiboa). Ondoren, beste hauek ere izan ziren irakasle: Frantzisko Juaristi (mekanikako irakasle laguntzaile eta gero irakasle 1921-1924...); Roman Ezenarro, (marrazketa 1921...); Lazaro Unzueta, (mekanikako irakasle 1933-1936); Jose Ansola: 1936-...; Felipe Zuazubizkar, (mekanikako praktikak 1936...). Horietako maisu batzuek tailer propioa izan zuten: Juaristik, Unzuetak eta Zuazubizkarrek, esaterako. Aurrerago, prestigio handiko makina-erremintako enpresen ekintzaile eta tekniko batzuk ikastetxe horretako klaustroko kide izan ziren: A. Aizpitarte, Zabalatarrak, L. M. Iriondo, Y. Zabaleta, eta Elkoro-Iribetarrak, beste batzuen artean. Jose Elkoro-Iribe, Sigmako langile zela, Arte eta Lanbide eskolan hasi zen maisu, iluntzetan; eta Estarta-Ecenarro S.A. enpresak lanbide eskola jarri zuenean 1958an, bertan eman zituen eskolak Nicasio Andonegirekin batera.

XIX. mendearen bukaeran hasi eta XX. mendearen azken laurdenera arte doan garaian, elgoibartar enpresari ekintzaileek honako ezaugarri hauek izan zituzten:

- Enpresa berriak sortzeko abagune ekonomiko ona izan zuten, oro har, eta fabrikatzen zutena saldu ahal izateko merkatua izan zuten, aldika krisi txiki batzuk izan zituzten arren.

- Hasiera hartan kanpoko makinak izan zituzten eredutzat, gero bertakoak ere bai, haiek desmuntatu eta piezaka ikusi, ikasi (elementu guztien marrazkiak egin) eta ekin egiten zuten. Edo, zenbait kasutan, eurek lan egin zuten tailerlean fabrikatu ohi zuten produktu berdina egin, eta horrela, haren lehiakide berri bilakatzen ziren. Kasuren batzuetan, auzitara deitu zituzten ekintzaileak.



(Meka eskolak lagatako erretratua)

1952ko ekainaren 29an, Bernardo Ezenarro marrazketako maisu handiari omenaldia egin zioten eguneko argazkia. Arte eta Ofizioetako eskolako irakasle batzuk ageri dira: Beheko ilaran: José Elkoro-Iribe, Manolo Zabala, Amadeo Aizpitarte, Bernardo Ezenarro, Pedro Gabilondo, Jose Luis Ansola.

Goiko ilaran: German Pedrosa, Luis Mari Iriondo, Vicente Elkoro-Iribe.

- Ekintzaile gehienak lehen hezkuntza ikasi ondoren, hamalauren bat urterekin hasi ohi ziren lanean, eta lan egiten zuten tailerlean bertan heziketa teknologikoa jaso zuten, makina-erreminta desberdinen erabilera eta produkzio-prozesuaren faseak ikasiz. Gaztetxo haiek lanetik irten ondoren, gehienak, arratsaldeko seietatik bederatzia arte, Arte eta Lanbide eskolara edo Mekanikara joan ohi ziren; beste batzuek, korrespondentziaren bitartez edo bere kasa ikasi eta libretik azterketak egiten zituzten. Edozelan ere, hauek elkarrizketatu ditugunean, promozionatzeko egarria izan zutela atzeman dugu eta etengabeko ikasketak-prozesuan aritu zirela, egunero teknologiak planteatzen zizkien korapiloak askatu ahal izateko.

- Beste ekintzaile batzuek Eibarko Armeria Eskolan ikasi zuten, eta hamaseiren bat urterekin lanari ekin zioten. Horien prestakuntza teknologikoa estimazio handikoa zen garai hartan. Gutxi batzuek, peritu industrial edo merkataritza ikasketak egin zituzten lan egiten zuten bitartean, eta Tarrasara, Bilbora edo Donostiara joan ohi ziren azterketak egitera.

- Era berean, Fidel Barrera ingeniariak eta Migel Ubiria industria-maisuak industrialei orientazioa eskaintzeko bulegoa ireki zuten 1945ean.

- Enpresa txiki bakoitzeko sortzaileen artean anaiak, koinatuak, lehengusuak, adiskideak (koadrila berekoak) edo aurreko tailerren batean elkarrekin lan egindako lankideak izaten ziren, kasu gehienetan.

• Elizgizonen ere izan zuten eragina Elgoibarko lanbide heziketa eta makina-erremintaren ekintzailetasuna bultzatzerakoan. Adibidez, Arrasateko kooperatibismoaren sustatzaile izan zen Arizmendiarrietak harreman zuzena izan zuen Elgoibarko kooperatiben sortzaileekin; Yeregi Elgoibarko San Bartolome parrokiako apaiz zumaiarra (industrialen familiako kidea) arte eta ofizioetako maisua izan zen sorreran, 1916an eta hurrengo urteetan; eta Antonio San Pedro Elgoibarko San Bartolome parrokiako apaiz eibartarrak FUMHE (Elgoibarko Makina-Erremintako Fabrikatzaile Elkartuak) elkartearen (makinak komertzializatzeke) sorreran esku hartu zuen 1960ko udaberrian, aholkulari moduan, hogei tailerretako ordezkariekin batera. Izan ere, belaunaldi honek elizaren eragin handia izan zuen, eta apaiz batzuek lan handia egin zuten giza baloreen sustapenean, JOCen (Gazte-langile katolikoak: “ikus, hausnar eta ekin) edo Herri-gaztedi eta abarren bitartez.

• Ekintzaileek beste enpresa batean lan egiten zuten bitartean, tailer txikiak sortu zituzten, eta eurek martxan jarritako enpresa txikian orduz kanpo lan egiten zuten. Proiektua bideragarria zela ikusi ohi zuten heinean, aurreko lana utzi egiten zuten. Kasu bitxia ere bada Eguzki enpresaren sorrera: Estarta y -Ecenarro S. A. enpresako langileak ziren sortzaile gehienak, eta ezkutuan bildu ohi ziren tailer berria martxan jartzeko; izan ere, izena eta izana Zirardamendiko txabola batean jarri zioten.

• Tailertxo asko herri-kaskoan edo kaskotik gertu, etxebizitzaren etxabe eta sotoetan, ireki zituzten: San Frantziskon, Santa Anan, Errosarion, Santa Klaran, Ermuaranbiden, Urazandin eta beste hainbat lekutan. Lokalak alokatu egin zituzten hasieran, eta denborak aurrera egin eta enpresaren egoerak hobera egin ahala, lokal handiagoak eta erosoagoak alokatu edo erosten zituzten. Adibidez, Kondiak bost kokapen desberdin izan ditu, Anayak SAak lau, Ger S. A., Danobat Soc. Coop., Estarta y -Ecenarro S. A., Mupem Const. Mecánicas eta Zubacor S. A. enpresek hiruna, eta gainerako gehienek bina.

• Ekintzaileek dirua jarri behar izan zuten proiektua aurrera eramateko, eta eurek ez zutenek, kasu askotan, familian edo lagunartean eskatu beharra izan zuten, aurrerago itzultzeko, ahal zutenean. Loporaino hipotekatuta zeudenez, lana erruz egin behar izan zuten, sarri, kobratu gabeko beharra eginez, erronka hura bideragarri egiteko.

• Enpresa berrien sortzaileek eta langile soilek ere “euren jakituria” (know how) erakutsi zuten urte hauetan, eguneroko erronka teknologikoei aurre eginez.

• Kezka soziala ere izan zuten ekintzaile batzuek, kooperatiba erako enpresak sortu aurretik. Izan ere, sozioek erabaki zuten langile guztiek irabazietan parte-hartzea izan zezatela, bazkide sortzaileak ez izan arren.

• Bi eredu ekonomiko eta antolaketa-mota garatu zituzten Elgoibarko makina-erremintako enpresek: sozietate anonimoa eta kooperatiba. Enpresa eta ekonomiaren ikuspegi biek elkarren arteko haserrea eragin zuten XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan, merkataritza mailako proiektu batua eragotziz (ACME). Hala ere, biak ala biak gure industria arrakastatsuen hauspo izan dira.

• Belaunaldi honetako enpresa sortzaile, sustatzaile eta langile ugari kezka soziala eta giza baloreen arduraren zuten, Elgoibarko zenbait proiektu sozialetan ere, sortzaile eta bultzatzaile izan zirenetan: Ikastetxeak (Mekanika, Ikastola, Institutua, IMH); kultura eta kirol-elkarteak (Ongarri, Elgoibarko Izarra, Klub Deportiboa, Morkaiko, Baltasar, Gurebide, Ego-toki etab.). Horietaz gain, zenbait zinegotzi ere izan ziren, erregimen autoritarioak eskaini zitzaizkeen aukerak probestu eta herrira onurak ekarri zituztenak.



(Jose Ignacio Jauregik eta Agustina Uriak lagatako argazkia)

1942 eta 1945 urteen arteko Inauterietako domekan ateratako erretratu. Imanol Vallejo adiskidearen alde dirua batzera kalera irten ziren abeslari eta musikari ezagun hauek.

Izan ere, belaunaldi honetako askok kezka sozial eta giza baloreekiko arduraren zuten, eta Elgoibarko zenbait proiektu sozialen sortzaile eta bultzatzaile ere izan ziren.

Makina-erremintako 11 tailer ireki zituzten lehen etapa honetan, gerra zibilaren ostera arte. Artisauak izan ziren neurri handi batean eta koiunturaren aldaketan aurrean oso zaurgarriak izan ziren. Hona hemen Elgoibarko aitzindariak:

Sorrera urtea	Ekintzailea / Enpresa	Gaia / Espezialitatea
1898	Jose León Ciaran	Zulatzeko makinak.
1904	Múgica-Azcue	Zerrak, esmerilatzeko makinak, sakatzeko tornuak.
1914	Ciaran-Estarta	Mahai gaineko eta zutabedun zulatzeko makinak.
1915	Ciaran, Estarta y CIA	Mahai gaineko eta zutabedun zulatzeko makinak.
1915	Larrañaga y CIA (Mendaro)	Atzera-aurrerako zerrak, zutabedun zulatzeko makinak.
1918	Endeiza y CIA (Mendaro)	Atzera-aurrerako zerrak, esmerilatzeko makinak.
1920	Ciaran y Zubizarreta	Zutabedun zulatzeko makinak.
1923	San Martin (hijos de)	Zurezko arraboten hortzak zorrozteko makinak.
1924	Arriola y CIA (Ayce Maquinaria)	Zutabe finkoko mandrinatzeko makinak.
1928	Lacha y Juaristi (Juaristi hermanos)	Mahai gaineko eta zutabedun zulatzeko makinak, hariztatzeko makinak.
1939	Gurruchaga, Construc. Mecánicas	Fresatzeko makina orokorrak.

Hauetz gain, makina-erremintako tailerrek behar zituzten modeloak German Pedrosak hornitu zituen 1928tik aurrera, modelista-enpresa martxan jarritakoan.

Hauetatik Estarta-Ecenarro y Cia enpresak izan zuen ibilbide luze eta oparoena. Eulogio zena, Ziaranengandik berezitatea, Teodoro Ecnarrokekin elkartuta, hasieran, eta beste akzionista batzuen (Banco Guipuzcoano, besteak beste) parte hartzearekin, aurrerago, mila langile baino gehiagoko enpresa handia izatera iritsi zen, eta hasierako makina-erreminta ez ezik, josteko makinak ere ekoitzi zituen, 1940tik 1995era arte, enpresa itxi arte.

Halaber, honako hau zen industria-paisaia Elgoibarren une honetan: 32 enpresa zeuden orotara 1931n, eta 43, 1937an. 1936an Estarta eta Ecnarrok 26 langile zituen, Alcorta y CIAk 30, San Pedrok 190 eta Gabilondok 55.

1940-1959.

Ekintzailetasunaren urrats irmoak.

Mundua Bigarren Gerra handiaren azken fasean zegoen 1944an, eta berreskurapen egoeran, 1945etik aurrera. Estatu Batuak eta Sobiet Batasuna potentzien arteko gerra hotza izan zen nazioarte mailako ezaugarriak behinena.

Nazioarte mailako testuinguru honetan, sei estatuk (Herbehereak, Belgika, Luxenburgo, Alemania, Frantzia eta Italia) EEE (Europako Elkarte Ekonomikoa) osatu zuten Erroman, 1957ko martxoaren 27an.



Sigmako anagrama.

Josteko makinaren sinboloa baino gehiago dago horren baitan: Ehunka langile Estarta-Ecenarro S.A. enpresa handian lan egindakoak.

Bertan jardundako langileek hamaseiren bat makina-erremintaren enpresa berri sortu zituzten, eta entitate honek Elgoibarko herriaren bizitza soziala mugatu zuen.

Espainiako estatuan gerra zibila bukatu berri zen eta egoera lazgarria zen: gosea (janarien errazionamendua), tristura, familiak sakabanatuta eta batzuk hilda... Hori zen panorama. Errepublikaraiko askatasunak eta eskubideak, alderdi politikoak, sindikatu libreak, euskararen ofizialtasuna eta abarrak deuseztatu zituzten Francoren diktadurapean. Frankismoaren lehen urte hauetan aipatutako ezaugarri hauetaz gain, beste bi nagusi nabarmenduko nituzke: politikoki nazioarte mailan mundutik bakantzea eta autarkia ekonomikoa. Ekonomia mota horren ezaugarri garrantzitsua interbentzionismoa izan zen: estatu frankista ekinbide pribatuaren jardueretan sartu ohi zen.

Oinarrizko askatasun eta eskubideak deuseztatuak eta polizia-kontrola izugarria izan arren, protesta sozio-politikoak izan ziren 1951ko ekainean. Elgoibarko Udalak gogor zentsuratu zituen hauek. Espainiako estatu autoritarioak *Estabilizazio Plana* jarri zuen indarrean 1959an. Sei urte lehenago AEBekin hitzarmena egin zuen Espainiak, eta 1955ean NBEn eta FMIIn onartu zuten. Euskal Herrian ETA sortu zuten gazte ekintzaile batzuek 1959ko uztailean. XX. mendearen erdialdean automobilaren sektoreko Seat, Fasa-Renault eta Barreiros enpresen filialak jarri zituzten Espainian, eta geroago, Ford, General Motors eta Citroen.

Hona hemen garai hartako alkateak: Teodoro Alkorta (1940-1943), Julio Mugerza (1943-1949), Jose Rezola (1949-1958) eta Anjel Ajubita (1958-1974).

Elgoibarrek 5.683 biztanle zituen 1940an, 6.045 biztanle 1945ean, eta 6.913, 1950ean. Udala kezkatu zegoen biztanleen igoerarekin, ia 900 pertsona gehiago 1945etik 1950era. Industriaren garapenarekin lotu zuen hazkundea (... *avance extraordinario de la industria local...*, zioten). Etxebizitzaren gabezia zegoenez, behar beste etxebizitza xume eraikitzen jarraitu behar zuela adierazi zuen Udalak 1951ko maiatzaren 5ean, familia askok ez baitzuten etxebizitzarik. Artetxeko etxeak 1953an eraiki ziren eta Artetxeko trenbidearen gaineko aldekoak 1957an. Sigmako lehendabiziko blokeko etxeak ere eraiki zituzten 1955ean, eta lanbide heziketako eskolak 1958an. Halaber, San Pedro fabrikak langileentzako etxeak eraiki zituen 1956an.

Udalak beste kezka bat ere azaldu zuen 1947ko azaroaren 13ko udalbatzan: tuberkulosi-gaixota-

sunak eragin handia zuen herrian eta inguruan; gainera, erietxeak beterik zeuden gaixo haiek hartzeko, eta zenbait familiak arazo larriak omen zituen. Populazioak hazten jarraitu zuen, hala, 1957an 9.996, 1958an 10.593, eta 1959an, 10.864 biztanle zeuden.

Udalaren aurrekontua 309.705,50 pezetakoa izan zen 1943an, eta San Bartolome jaietako gastuak, berriz, 4.893,15 pezetakoak. 1945ean, berriz, Udalaren gastua 517.970,09 pezetakoa izan zen, eta 732.031,95 pezetakoa, 1948ko aurrekontua. 780.000 pezetakoa 1949an; 940.000 pezetakoa 1950ean. 1951n aurrekontu ohikoa 1.100.000 pezetakoa izan bazen, 4.186.185,71 pezetakoa izan zen ezohikoa. Beraz, sei urtetan bikoiztu egin zuten agintariek Udalaren ohiko gastua. Dударik gabe, urte haietan izandako inflazioak ere zerikusia izan zuen hazkunde ikaragarri horretan. Izan ere, adibidez, udal-funtzionarioei soldatak igotzerakoan, 1947ko azaroaren bukaeran, Udalak berak aitortu zuen bizimoduaren garestitze handia zela-eta, behar larria zegoela lansariak hobetzeko. Udal-aurrekontu arruntak ikaragarri hazten joan ziren urte haietan, eta honen adibide dugu, 1958an 3.363.495 pezetakoa izan zela aurrekontua.

Hogeitau urte hauetako makina-erremintaren testuinguru ekonomikoari dagokionez, Espainia estatuko ekonomia autarkian murgildu zen eta, politikan bezala, itxi egin zen munduarekiko 1959ra arte. Estabilizazio plana indarrean jarri zuten orduan agintari frankistek. Horrela, bada, muga-babes handia izan zen urte hauetan, Estatuak ahalik eta autosufizientzia handiena lortzea nahi zuen-eta.

Zailtasun handiak izan zituzten lehen ekintzaileek lehengaiak, erremintak eta zenbait produktu lortzeko, argindarrean ere mugak eta urritasuna zeudelako. Baina, gauza onik ere izan zuten lehen fabrikatzaileek: makina-erremintaren merkatuaren eskaria handia zen. Berrogeita hamarrek hamar kadan lehen esportazioak egin zituzten Latinoamerikako herrialdeetara. Makina-erremintako hogeita sei tailer jarri zituzten martxan 1940tik 1959ra arte, eta hauetako hamabost tailerren ekintzaileek Estarta-Ecenarro enpresan lan egin zuten aurretik. Hiru tailerretako ekintzaileek Ciaranen, eta beste hiru tailerretakoek, Jarbe enpresan.

Hona hemen garai hartan sortu ziren makina-erremintako tailerrak:

Sorrera urtea	Enpresa	Gaia / Espezialitatea
1940	Acar S.A.	Hauspoak, ehotzeko tresnak.
1940	Arana y Uribe S.A. (Jarbe)	Fresatzeko makinak, artezteko makinak eta engranaje hortzak biribiltzeko makinak.
1940	Zabaleta, Talleres	Fresatzeko makina orokorrak.
1941	Iriondo const. mecánicas (Mendaro)	Estanpadorak.
1942	Ger Máquina-herramienta S.A. (Arocena Unzueta, José)	Artezteko makina zilindrikoak eta gainazal lauak arteztekoak.
1944	Izaguirre Félix, (Migi), (Maquinaria Izaguirre S.A.)	Fresatzeko makina orokorrak.
1945	Ziur (Andonegi anaiak)	Mikrometroak.
1947	Abate, Construcciones	Tornu paraleloak.
1947	Aspiazu Fund. y Talleres Mec. (Mendaro)	Tornu paraleloak, zutabedun zulatzeko makinak, zerrak.
1947	Elgo, S.A.	Tornu biragarriak, zorrotzeko makinak, disko-zerrak.
1947	Zubal (Oyarzabal S.A., Carmelo)	Tornu paraleloak eta produkziokoak.
1948	Lasa, Ind. Mecánicas	Zutabedun zulatzeko makinak.
1949	Alberto Juaristi "Alju"	Zulatzeko makinak.
1949	Roberto Zubiaurre	Fresatzeko makinak.
1950	Pedro Loyola "Txankia"	Fresatzeko makinak eta fundizioa.
1952	Alkartu, Construcciones	Ziklo automatikotako fresatzeko makinak.
1953	Conde, Urbano "Kondia"	Dorretxodun eta bankada finkoko fresatzeko makina orokorrak; mekanizazio zentroak.
1953	Pedrosa Const. Mec. (Izpe S.A.)	Hariak ijztekko makinak.
1954	Danobat, Soc. Coop. (1966an kooperatiba)	Artezteko makina zilindrikoak, gainazal lauak arteztekoak, produkzioak, tornu horizontal eta bertikalak, makina bereziak, mekanizazio zentroak, zerrak.
1954	Etxe-Tar, S.A.	Transfer makina bereziak.
1955	Aizdon Máquinas-Herramienta	Zulatzeko makinak, hariztatzeko makina bertikal eta horizontalak. Transfer makinak.
1955	Berdin	Produkzioko tornu kopiatzaile hidraulikoak.
1955	Mupem, Const. Mecánicas	Tornu automatikoak.
1955	Fide	Torlojuak estanpatzeko makinak.
1956	Eguzki, Ind. Mecánicas	Tornu biragarriak eta automatikoak.
1956	Lagun, S.A.	Fresatzeko makina orokorrak, bankada finkokoak, mekanizazio zentro horizontalak eta bertikalak.
1957	Geminis, S.A.	Tornu paraleloak, aurretikoak etb.
1957	Zubi, Ind. Mecánicas	Tornu biragarriak, paraleloak eta tutuak kurbatzekoak.
1958	Gozua, Construcciones	Artezteko makina zentrogabeak.
1959	Orbatu	Txartatzeko makinak, dibisorak.

Makina-erremintako tailer hauetaz gain, beste sektore batzuetakoak ere martxan jarri zituzten Elgoibarren urte haietan, eta batzuk, industria mota haren hornitzaile izan ziren. Hona hemen adibide batzuk: Valerio Arriolak torlojuak egiteko tailer txikia (1940); Gurelanek mekanizazioa (1940); Kristobal Alvarezek metal-galdategia Kamiñerokoan (1944); Elgoibar fundizioak (1945); Fidel Barrera ingeniariak eta Migel Ubiria industria-maisuak industrialei orientazioa eskaintzeko bulegoa ireki zuten (1945); Manuel Arrietak eta Pedro Gorritik pabiloi industrial bana Urazandin; Luziano Arregik Azkoitirako errepidearen alboan (1948); Pedro Loiolak (Txankiak) San Roken, (1950); Antonio Arrillagak fideo- eta makarroi-pasta egiteko industria (1951).

Mendearen erdialdean Urazandi eta Alba fundizioak ere martxan zeuden, eta modelo-tailer berriek ere ekin zioten lanari: Arsuaga (1949) eta Linaje eta Kortabitarte (1955). Cimde (1965) eta Sty-fun (1973) enpresak, berriz, geroagokoak ditugu. Ina-Rodisa 1953an jarri zuten martxan Eibarren, eta 1971n Elgoibarko Arriaga auzora etorri ziren.

Garraioari dagokionez, herri barrukoa zaldi, behor edo mandoen bitartekoa zen garai horretan, eta trena izan zen, nagusiki, kanpora saltzeko nahiz kanpotik Elgoibarrera garraiatzeko garraio bide nagusia. Canovas, Arozena, Lizundia eta Azkoitiko Santik jauzi handia egin behar izan zuten: abereak ondo erakutsita izatetik, kamioia gidatzeko gidabaimena izatera pasa ziren. Mendaroko Garatek (Animarte) ez zuen kamiorik izan, eta berak erretiroa hartu zuenean, behorri ere atsedena eman zion. Aipamena merezi du Estarta Ecenarro S. A. (Sigma) enpresak herri barruko garraiorako zuen fenixak, eta Mateo eta Boni gidari zirenak oraindik ere gure buru eta ninietan gordeta ditugu. Izan ere, herri mailako hamaika ekintzatan esku hartu ohi zuen, haiek gidatutako, bateriadun karramotoak (horrela deitzen genion). Kamioia gailendu zenean eta 640 errepidea herri-kaskotik kanpora desbideratu zutenean, 1953an, trafikoa zein kamioilarien kopurua ugaritzen joan zen. Albazu, Alberdi (Olasope), Iriondo (Apraiz), Ansola (Txitxirrika), Aizpitarte (Kakatza), Arozena, Lizarralde, La Bermeana, Osoro eta abar errepidean jarri ziren poliki-poliki. Batzuek, horietako azkenek, lanean dihardute, eta bidaiia luzeak egin ohi dituzte: Bilboko edo Bartzelonako itsas portuetara edo Espainiako estatuko edozein tokitara, adibidez.

Tailer handienek honako langile kopuru hauek zituzten 1955ean:

Enpresa	Langileak
Estarta y Ecenarro S.A.	611
Alcorta y CIA SRC	160
San Pedro S.A.	330
Gabilondo y CIA	115
Arana y Uribe R.C.	80
Urazandi fundiciones	51
Alba fundiciones	44

Horretaz gain, 1956 urtean 108 industria zeuden Elgoibarren. 36 taberna eta jatetxe, 28 janari-denda, 8 harategi, 14 ehun-denda, 11 zapata-denda, 4 drogeria, 5 burdindegi, 6 kinkila-denda, 4 altzari-denda, 6 etxetresna elektriko-denda, 2 txokolate-fabrika, 3 gozotegi, 4 iturgin, 15 ile-apaindegi, 7 jostundegi, 8 modista, 5 abarketa-fabrika, 4 abokatu, arkitekto 1, 2 aparejadore, 2 botikari, 8 mediku, 3 odontologo, 2 praktikante eta albaitari 1 ere zeuden (**1956ko Elgoibarko San Bartolome jaietako egitaraua**).



1954an Danobatek Ermuaranbide kaleko tailer txikian egindako bi makina modelo. Une honetan bizitzen ari den historia arrakastatsuen hastapenak ditugu.

Elgoibarko 1956ko langileen kopurua industria-adarren arabera

Josteko makina	614
Makina-erreminta	635
Burdindegi gaiak	184
Fundizioak (galdategiak)	637
Forjak	145
Tailer mekaniko laguntzaileak	88
Armagintza	165
Ehungintza	43
Eraikuntza	253
Zurgintza	86
Argindarra	23
Irina eta deribatuak	42
Arte grafikoak	18
Lanbide batzuk eta artisautza	96
Garraioak	25
Guztira	3.054

Iturria: Elgoibarko 1956ko San Bartolome jaietako egitaraua.

Halaber, 4.729 industria-langilek osatzen zuten herriko errolda 1959an, eta 6.135ek 1969an.

1960-1975.

Sendotze eta garapen urteak.

Garai hau, Espainiako estatuan *Estabilizazio Plana* indarrean jarri zenetik, nazioarteko krisi ekonomiakoaren ondorioak nozitzen hasi ziren arte luzatu zen.

Vatikanoko II. Kontzilioa izan zen Erroman 1962ko amaieratik 1965era arte. Eragin handia izan zuten Parisko ikasleen protestek 1968ko maiatzean. Armstrong, Collins eta Aldrin astronautak ilargira iritsitako lehen gizakiak izan ziren 1969ko uztailaren 21ean. Portugaleko diktaduraren amaiera (*Krabelinen Iraultza*) 1973ko apirilean. Arabiar-israeldarren arteko laugarren gerra izan zen urte berean, eta ho-

nen ondorioz, petrolioaren prezioa igo zen. Igoera honek eta 60ko hamarkadako azken urteetako moneta-desordenak krisi ekonomikoa sorrarazi zuten. EEE lehen aldiz zabaldu zen 1973an, eta Danimarka, Britainia Handia eta Irlanda sartu ziren. Txilen Pinocheten estatu-kolpea ere urte horretan izan zen. Tropa estatubatuarrek 1975ean erretiratu ziren Vietnametik.

Espainian estatu autoritarioak *Estabilizazio Plana* jarri zuen indarrean 1959an, eta lehen *Garapen plana* martxan jarri zuen gobernu frankistak 1963an. Aurretik, AEBekin eta Nazio Batuekin zenbait akordio sinatu zituen, eta ELGE (OCDE) erakundearen partaide egin zen. Ekonomiari dagokionez ere EEEekin lehentasuneko hitzarmena sinatu zuen 1970ean. 1969ko uztailaren 22an, Francok bere ondorengo izendatu zuen Juan Carlos printzea. Hamabost ETAkide epaitu zituzten Burgosen 1970eko abenduan. Carrero Blancoren aurkako atentatua izan zen Madrilen 1973ko abenduaren 20an. ETAkide bi eta FRAPeko hiru fusilatzeak agindua eman zuen Francok 1975eko irailean, eta handik bi hilabetera hil zen diktadorea, azaroaren 20an.

Euskal apaizek (339) manifestu bat idatzi zuten erregimen frankistaren aurka 1960ko maiatzean. Gipuzkoako brigada sozialaren buru zen Meliton Manzanos hil zuen ETAk 1968ko abuztuan. Arantzazun egindako hizkuntza-hausnarketa baten ondoren, Euskara Batuari buruzko adierazpena argitaratu zuten zenbait euskaltzainek urte berean.

1960tik 1975era arte Elgoibarren honako alkate hauek izan ziren: Anjel Ajubitak (1958.07.15/1974.04.17) 16 urtez alkate izan eta gero uko egin zion eta Jaime Arresek (1974.04.17-1977.05.09) hartu zuen agintari-makila.

Udal-aurrekontu arruntak ikaragarri hazi ziren urte hauetan: 3.363.495 pezetakoa 1958an, 6.738.000 pezetakoa 1963an, 11.747.000 pezetakoa 1968an, 24.200.000 pezetakoa 1973an eta 78.000.000 pezeta 5 urte geroago.



Estarta-Ecenarro S.A. enpresak (1914-1995) 1960 inguruan egin zituen makina-erreminta modelo batzuk. Harrezkero, Elgoibarren egin diren makinak ereduak ditugu, eta adibidez, Estarta, ACM, Danobat, Etxe-Tar edo Soraluze tailerrek ere makina-transferrak fabrikatu dituzte. Euren arteko lehiak bideak zabaldu dizkie munduko merkatuetan lehiakorrago izateko.

Populazioak ere gorantz egin zuen 1959 eta 1975 artean: 1959an: 10.864, 1960an: 10.847, 1961ean: 11.053, 1962an: 11.366, 1963an: 11.775, 1964an: 12.164, 1965ean: 12.510, 1966an: 12.637, 1967an: 12.828, 1968an: 12.931, 1969an: 13.090, 1970ean: 13.459, 1971n: 13.568, 1972an: 13.623, 1973an: 13.600, 1974an: 13.654, eta 1975ean: 13.951. Honen harira esan behar dugu, 1964an Elgoibarko plangintza orokorraren antolamendua berrikusterakoan, teknikariek 10 urte aurretik iragarri zutela gure herriak hazkunde ikaragarria izango zuela, 20.000 biztanleko aurreikuspena eginez. Asmatu ez arren, 1.500 biztanleren hazkundera izan zuen, beraz, ez zen makala izan.

Horretaz gain, industriaren garapena eta biztanleriaren bilakaera oso azkarrak izan zirenez, adituek adierazi zuten etxebizitza arazoa zegoela. Horregatik, herri-eraikin batzuk zein etxebizitza asko eraiki ziren. Lehenengoan artean, Lanbide-Eskola (1964); guardia zibilen kuartela (1964); Sigmako zubia (1968); Pedro Mugurutzak diseinatutakoa (1970), Azoka-plaza (1972an, Pedro Muguruzak diseinatutakoa bota ondoren). Etxebizitzak, berriz, auzo guztietan eraiki zituzten: Urruzuno eta Ezenarro kaleetan, Azkuen (San Roke), Arriagan, Urazandin, Santa Ana kalean, Ubitarten, Pedro Mugurutzak etorbidean (Maalatik Artetxe bitartean)... Hirigintzaren aitzakiaz, bi eraikin eraitsi zituzten: azoka-plaza (1973) eta Arriagako San Antolin ermita (1974). Tamalez, gure ingurugiroak eta guk geuk ere kalte handiak nozitu genituen industrializazio azkarraren eraginez. Besteak beste, Deba ibaia erre genuen hondakinen eta industriaren isurketekin 1962an eta 1963an. Ordura arte bertan bainatzen ginen (Goikoerrota eta Morterika) eta arrantzan ere aritzen ginen (S. Rementeria, S. Apraiz, B. Usetxe, Retolaza anaiak eta abar, besteak beste). 1974an autopista iritsi zen Elgoibarrera, eta horrek errepideko komunikazioa erraztu zuen handik aurrera.

Udal politikari dagokionez, erregimen frankistarekiko atxikimendutik askatzen hasi zen Elgoibarko Udala azken urteetan. Izan ere, zenbait erabaki politiko hartu zituzten elgoibartar agintariek eta frankismoren ideologiatik aldendu ziren. Hona hemen adibide batzuk: Debako Udalarekiko atxikimendua Elorriaga-ltxaspeko zentral nuklearraren aurka (1974) eta foru-erregimen ekonomiko-administratiboa berrezartzeko eskabidea Gipuzkoan eta Bizkaian (1975). Hurrengo urteetan ere joera hori erakutsi zuten.

1969ko langile kopurua, industria-adarren arabera	
Elikadura	294
Armak	312
Karrozeriak	30
Eraikuntza	382
Elektrizitatea	79
Forjak eta ferretereria	404
Fundizioak	1.042
Nekazariak	554
Makina-erreminta	2.432
Papera	40
Lanbide batzuk	75
Torlojugintza	132
Garraioak	41
Jantziak eta oinetakoak	240
Bestelakoak	78

Iturria: Elejalde F., Erenchun J. : *Elgoibar. 1970* Sigmak (makina-erreminta eta josteko makina) 964 langileri lana ematen zien Elgoibarren bertan 1974an.

1959ko Estabilizazio planak (plan honen sustatzaile zen Ullastres ministro teknokrata Elgoibarren egon zen) hasieran barne merkatuaren krisia ekarri bazuen ere, makina-erremintaren erreakzio baikorra eragin zuen gero, eta esportaziorako bokazioa landu.

Horrela, bada, garapen bidetik jarraitu zuen industriak urte hauetan, eta Bilbon, 1961ean, egin zen makina-erremintaren lehendabiziko feriak bul-tzada handia eman zion sektore honi, AEBetako eta Europako ekonomien bolada onekin batera. Handik aurrera, AFMk (Makina-Erreminta Fabrikatzaileen Espainiar Elkarteak), 1946an sortutako elkarteak, bere gain hartu zuen feria honen anto-laketa, bi urtetik behin eta urte bikoitietan, eta CECIMOk (makina-erremintako industrien koope-ratzaioarako europar batzordea) kide egin zen 1962an.

Halaber, feriei dagokionez ere, 1967ko Hannoverko EMO feriak ere garrantzi handia izan zuen zenbait tailerrentzat.

Gure herriko enpresek hasieratik hartu zuten parte AFM erakunde garrantzitsuan, eta protagonismo handia izan dute zenbait elgoibartar ekintzailek (Cruz Arriola, (1972-1976); Luis Arrieta, (1976-1979); Pedro Atristain, (1990-1992); Frantzisko Gabilondo, (1995-2000) presidenteeak; eta Frantzisko Aldabalde-trecuk (1979-1985), (1992-1995), Rafael Barrenetxeak (2001-2004) eta Jose Ignazio Torrecillak (2012-) ere bai. Azken hirurak elgoibartarrak ez izan arren, lotura estua dute, edo izan dute, Elgoibarko industriarekin (Aldabalde-reku zenak, baita Makina-Erremintaren museoarekin ere). Ortueta aita- seme elgoibartarrak, berriz, zuzendari orokorrak: Alberto hogeita hamahiru urtean lan bikaina egin ondoren zendu zen, eta Xabier dugu orain eginkizun horretan.

1965ean Elgoibarko Gabilondo arma-fabrikak Gasteizera alde egin zuenean, kalte handia nozitu zuen gure industria-sareak. Hala ere, hari aurre eginenez, lehendik zeuden enpresek langile gehiago har-

tu zituzten eta ekoizpenak gorantz egin zuen, eta zenbait elkarte anonimo batu egin ziren. Gogoratu behar dugu, Gabilondok Elgoibarko instalazioak itxi eta bederatzita urtera, Estarta y Ecenarro enpresak (makina-erreminta eta josteko makina) 964 langileri lana ematen zela Elgoibarren bertan.

Teknologia eta prozedura berriak ikertzen eta aplikatzen jardun zuten tailerrek, eta epe honen bukaeran, zenbakizko kontrolaren lehen urratsak eman ziren Espainiako estatuan. 1974an erakutsi zen zenbakizko kontrola Bilboko ferian lehen aldiz. Makina-erremintaren industriak eta gainerako sektoreetakoek krisi ziklikoak nozitu zituzten, eta 70eko hamarraldikoaren erdialdekoa izan zen gogorenetakoa.

Hona hemen, 16 urte hauetan elgoibartarrek sortu zituzten makina-erremintako hamazazpi tailer-rrak. Batzuek Elgoibartik kanpo jarri zituzten instalazioak, bertan zoru industrialik ez zegoelako:

Sorrera urtea	Enpresa	Gaia / Espezialitatea
1960	Inca Industrias	Zinta-zerrak, karraskatzeko makinak, ebaketarako makina bereziak eta izurtzeko makinak.
1960	Acme, S.A.	Tornu kopiazaileak, zulatzeko makinak, hariztatzeko makinak, makina bereziak, transfer makinak, ziklo automatikotako fresatzeko makinak, artezteko makina zentrogabeak eta gainazalak lauetarakoak.
1960	Zudam, Constr. Mecánicas	Zutabedun zulatzeko makinak.
1961	Anayak, S.A., Industrias	Bankada finkoa eta zutabe higikorra duten fresatzeko makinak, mekanizazio zentroak.
1961	Goiti Soc. Coop.	Prentsak, puntzonatzeko makinak, tolesteko makinak, laser bidezko ebaketa.
1962	Zuzendu, Industrias Mec.	Fresadorarako osagarriak, tornuak.
1963	Elgoibar Construcciones (Maquinaria CME)	Fresatzeko makina orokorrak, bankada finkokoak, zutabe higikorrekoak, mekanizazio zentroak.
1963	Gorosabel Group	Uraren bidez ebakitzeko makinak.
1963	Zubacor	Makina bereziak.
1964	Acme Taller Auxiliar, S. A.	Erremintak (tresneria) eta makina bereziak.
1965	Aguirregomezorta Hnos., S.A. (Aisiakin)	Transfer makinak.
1969	MYL, S.A. Talleres	Artezteko makina zentrodunak eta koordenatutakoak.
1970	Burgelu	Hariak ijetzeko erremintak.
1971	Korlan, S.A.	Artezteko makina zilindrikoak eta hariak arteztekoak.
1971	Zubacor	Makina bereziak.
1974	Grupo Maherholding	Enpresen sortzaile, sustatzaile eta merkatal harremanen bideratzailea.
1975	Shuton (Gasteiz)	Prezisionzko boladun ardatzak.
1975	Intermaher (Gasteiz), Makintrol (Gasteiz) eta Morkaiko (Itziar)	Makina-erremintaren saltzaileak.



70. hamarkadako Estarta-Ecenarro S.A. enpresako prentsen muntaketa.

Gure Elgoibarko gizarteak (familia, eskola, eliza...) eta enpresek pertsonak trebatu zituzten lan munduari zein gainerako erronkei erantzun ahal izateko.

Horrela, ardura handiz, munduko edozein bazterretako bezeroen beharrei erantzuteko gai izan dira.

Grupo Maherholding-i buruz esan behar dugu, horren sorreran enpresari talde batek, nagusiki, elgoibartarrak buru zirelarik, aldaketa sakonak egin beharraren hausnarketa eta diagnosa egin zituztela, Europa erreferente hartuta, produkzioaren teknologien (zenbakizko kontrola) zein makina-erremintaren enpresen antolaketa moduaren inguruan. Helburua munduko merkatuan lehiakorra izatea zen, eta sinergien eta kapitalen arteko zeharkako batasunaren eredu bat sortu zuten. Makina-erremintako hamabi enpresa fabrikatzailek, lau handizkako saltzailek eta lau banketxek ekin zioten 1974an Espainiako estatuan aitzindari izan zen holding era-ko esperientzia berritzaileari. Ekimen horrek industria zein merkatal enpresa berriak sortu zituen sektore honetan, eta martxan zeuden beste batzuetan ere inbertsioak egin zituen.

Askotan kritikatu izan da gure indibidualtasuna, baina hainbat ahalegin ere egin izan dira hori gainditzeko, eta elkartasuna bilatzeko, indartsuago izateko. Esperientzia korporatiboak ditugu Fumhe, Acme, Danobat, Afaex eta abar. Batzuek fruituak eman bazituzten ere, beste batzuk bidean gelditu ziren. Elgo, Etxe-Tar, Ger, Inmar, Kondia eta Zubal enpresek, kanpo merkatua elkarrekin antolatu eta bultzatu nahian, Afaex (Makina-erreminta esporta-

tzaileen asoziazioa, S.L.) sortu zuten gure herrian 1963an. Hiru urte aurretik, 1960ko abuztuaren 24an, Elgoibarko makina-erremintaren fabrikatzaileek erregimen frankistaren agintarien aurrean premiazko gestioak eginda, sektore horren Gipuzkoako lehen erakusketa antolatzea lortu zuten. Elgoibarko 21 enpresak izan zuten stand-a, eta Gipuzkoako berrogei enpresak erakutsi zituzten euren makinak Donostiako Udaletxean, inaugurazioan Solis, Ullastres eta Vigón ministroak izan zirelarik.

Makina-erremintako industriez gain, beste sektore batzuetako enpresa eibartarrek Elgoibarko Arriagara ekarri zituzten euren instalazioak: Cetasa (Grindel) (engranajeak) eta T. Sarasketa (tratamenduak). Karentatua egiteko tailerrek eta mekanizaziokoek ere ireki zituzten atak Elgoibarren makina-erremintaren babespean: Industrias Bi (1964) eta Kalman (1972), Rect. Ofer (1965) eta Etxepe (1973), hurrenez hurren. Bernardo Ezenarro (1963) pintura fabrikatzen hasi zen, makina-erreminta tailerrak haren bezero garrantzitsuak izanik. Eta 1970ean Voltak enpresa sortu zuten, makina-erreminta tailerrak ekipo elektriko eta elektronikoz hornitzeko. Azkenik, Microcontrol (1973) enpresa metrologia elektronikoa lantzen hasi zen.

MAKINA-ERREMINTA (III)

1976-1985 Krisi ekonomikoa handia

Krisia mundu mailakoa izan bazen ere, **Espainia-ko estatuan** izan zuen eragina are kaltegarriagoa izan zen. 1973an petrolioak eragindako krisia bi urte geroago gertatu zen Espainian. 1979an izan zen petrolioaren bigarren krisia, eta urterik larriena 1982koa izan zen nazioarte mailan, Iran eta Irakeko gerraren ondorioz. Era berean, XX. mendearen azken hamarkadan Estatu Espainiarraren desindustrializazioa hasi zen, eta estrategikotzat jotzen ziren hainbat sektore desagertzen joan ziren, hala nola, siderurgia eta ontzizintza. Azkenik, 80ko hamarkadan, Txinak hainbat erreforma egin zituen industriaren arloan, eta horrek, enpresak eta atzerriko kapitala erakarri zituen; eta horri esker, industria teknologikoak eta azpiegiturak sortu ziren.

Espainiar Estatuan, Suarezek proposatutako *Erreforma Politikorako legea* onartu zuten Gorteen 1976ko azaro-abenduan. Hiritarren askatasun eta eskubide politiko eta sindikalak indarrean jartzea garrantzi handikoa izan zen gizarte nahiz enpresen egituraketa berrirako: negozioazio kolektiboa langileen sindikatu eta enpresa-gizonen artean. Preso politikoentzako amnistia dekretua eman zuen gobernuak 1977ko maiatzaren 20an, eta Frankismoaren ondorengo lehen hauteskunde demokratikoak izan ziren ekainaren 15ean; UCD izan zen irabazle. Konstituzioa onartu zuten 1978ko abenduaren 6an. Bestalde, Moncloako Itunak sinatu zituzten zenbait alderdik, sindikatuk, enpresaburuk eta gobernuak urrian. Estatu-kolpe militarren saiakera izan zen 1981eko otsailaren 23an. PSOEk irabazi zituen hauteskundeak Espainian, 1982ko urriaren 28an. Espainiako estatuak NATOn (OTAN) sartzea onetsi zuen 1985ean.

Honako gertakari nagusi hauek izan ziren **Euskal Herrian**: Eusko Kontseilu Nagusia eratu zuten 1978ko otsailean, eta Konstituzioa onartu zen abenduan Espainian. Gure Autonomia Erkidegoan, berriz, %54,49ko abstentzioa eta %10,85ko aurkako botoa izan ziren. Gernikako Estatutua



GER – Biraketa-pieza handiak artezteko makina bertikala.

onartu zen 1979ko urriaren 25ean. Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zuten 1980an. Nafarroako Foru Erkidegoa eratu zen 1982ko abuztuaren 10ean. EAEko hauteskunde autonomikoak irabazi zituen EAJk 1984ko otsailean, eta Garaikoetxea lehendakariak dimittitu egin zuen abenduan, EA alderdia sortuz. Urralburu aukeratu zuten Nafarroako gobernuko lehendakari 1984ko maiatzean. Ardanza aukeratu zuten EAEko lehendakari, eta PSErekin legealdirako ituna sinatu zuten 1985eko urtarrilean. Une horretan EAEko langabezia-tasa %22,8koa zen.

Elgoibarko demografian ere krisia nabari da hamarkada honetan. 1976tik (14.235) 1979ra (14.450) arte Elgoibarko biztanleriak hazkundea izan bazuen ere, ondoren, 1985era arte, joera aldatu egin zen, eta biztanle kopurua jaitsi egin zen. Azken urte horretan 12.743 biztanle zeuden Elgoibarren. Gogorazi behar da, 1984an herriak 1.118 biztanle galdu zituela, gehienak Mendaro udalerrira sortzerakoan. Horretaz gain, esan behar da, 1979an jo zuela goia gure herriko populazioak, 14.450 biztanlerekin.

Urtea	Biztanleak
1976	14.235
1977	14.389
1978	14.401
1979	14.450
1981	13.862
1982	13.905
1983	13.916
1984	12.798
1985	12.743

Honako alkate hauek izan zituen Elgoibarrek urte horietan: Jaime Arrese (1974.04.17-1977.05.09), atentatuan hil zutena 1980an; Anjel Fernandez de Jauregi (1977.05.09-1979.04.19); Luis Arrieta, demokrazia garaiko lehen alkatea (1979.04.19-1983.05.23), Luzio Beitia (1983.05.23-1987.06.30).

Udal-aurrekontu arruntak ikaragarri hazi ziren urte haietan: adibidez, 3.363.495 pezetakoa izan zen, 1958an, 20 urte geroago, 1978an, 78.000.000 pezetakoa, 1983an 239.000.000 pezetakoa, eta 1984an, 280.000.000 pezetakoa.

Hirigintzari dagokionez, honako eraikin hauek eraiki zituzten hamarkada horretan: Santa Klara komentu berria (1976); Batxilergo Institutua (1976); Ikastola (1976); Urazandiko lehen hezkuntzako eskola (1980). Ordurako, kiroldegia eta igerilekuak eraikitzen ari ziren, baina bertan behera utzi behar izan zituzten, eraikinak akatsak zituelako, eta 1988an inauguratu zituzten instalazioak. Etxebizitzaren erakuntzak gelditu ziren urte haietan. Hirigintzaren aitzakiaz, hainbat eraikin eraitsi zuten: Santa Klara komentua eta Maalako ospitalea, eta horien ordezkari komentu eta ospitale berriak eraiki zituzten.

Era berean, Franco hil ondoren jarrera politikoa aktiboa hartu zuen Udalak, herri-mugimenduek bultzatuta, ez bairik gabe. Hala, amnistia eskabidea egin zitzaion gobernari (1976ko urtarrilean, abenduan eta 1977an), Euskal Herriko foruak berrezartzeko eskaera (1976) eta ordena publikoko indarrek su-armen gehiegizko erabileraren aurkako

protesta (1976). Horietaz gain, gai politikoen eztabaidak gero eta denbora gehiago hartu zuen udal-bileretan eta gizartean zegoen iskanbila-egoera agintarien artean ere islatu zen. Frankismoaren azken urteak eta demokraziaren hasierakoak izan ziren urte gogorrenak. Bestalde, tentsio handiko egoera gogorak izan ziren herrian zein Udalean, ETAK Berazadi enpresaria (Eulogio Estartaren suhia eta enpresako gerentea) (1976), Anselmo Duran, guardia zibila; (1978) Jaime Arrese alkate ohia (1980); Jose Exposito, erretiroa hartutako guardia zibila (1985) eta Patxi Zabaleta eta Sebastian Aizpiri elgoibartarrak (1988) erail zituzten.

Politikari dagokionez, alderdi politikoen arteko eztabaiden eta mozio ugariaren lekuko dira udal-agiriak. 1979an hasi ziren Udal-bilkuretan euskara erabiltzen, baina lehen akta euskaraz ez zen idatzi 1984ko urtarrilaren 27ra arte. Azkenik, garaiko testuingurua osatzeko, ezin aipatu gabe utzi 1983an eta bost urte geroago izan ziren uholde kaltegarriak. Hauek negarra eta kalte ekonomikoak ekarri zituzten gure herrira: bederatziti hildako eta galera material handiak.

Hamarkada honetan, munduan krisi garaia izan arren, garapen teknologikoak indarra hartu zuen, eta eskariak aldaketa handiak izan zituen. Horrela, zenbakizko kontrolaren erabilpenak produkzioaren metodoak eta sistemak aldatu zituen enpresetan. Automatizazioaren aukerak hazi ziren eta fabrikazioaren kontzeptu berriak sortu.

Adibidez, Danobat Koop. Elk. 1978an hasi zen zenbakizko kontrola erabiltzen. Era berean, bost bat urte geroago, ordenagailuaren bitarteko marrazketa-sistemak edo produktu berri guztien elementu finituen kalkulua ezarri ziren. Espainiako merkaturan atzeraldi ekonomikoa izan zen, inflazio handia eta inbertsio baxuak. Orduan, gure enpresek esportazioaren bidea aukeratu zuten tinko, eta une hartatik aurrera esportazioak balio guztiaren erdia baino gehiago dira.

Eusko Jaurlearitzak eman zien laguntza krisian zeuden makina-erremintako tailerrei, berregituraketa eta inbertsioak bultzatzeko, eta AFM-ek eta erakundeek 1982an nazioartera zabaldu zuten Bilboko XII. biurteko feria.

Elgoibarren honako makina-erremintako tailer hauek sortu zituzten 1976 eta 1985 artean:

Sorrera urtea	Enpresa	Gaia/Espezialitatea
1976	Atera	Makina-erremintaren esportatzailea (herrialde komunistetara, Asia eta Afrikara)
1976	Lanbi	Makina bereziak
1980	Doimak, S.A.	Artezteko makina zilindrikoak eta hariak arteztekoak
1981	Akoin, S.A.	Tornu bertikalak, artezteko makina zilindrikoak eta barneak arteztekoak
1981	Gaindu, S.A.	Muntaketa teknikak, robot industrialak
1982	Izpi (ez gaitu fisiko eta sentsozialen tailerra)	Muntaketak
1984	Maser	Makina bereziak eta automatizazioa.

Halaber, hauen inguruan beste enpresa laguntzaile hauek ere sortu zituzten:

Sorrera urtea	Ekintzailea/Enpresa	Gaia/Espezialitatea
1979	Tximi	Mekanizazioa
1981	Hydraulik Ring	Hidraulika-gaiak
1983	Emena	Fresatzeko makinaren osagarriak
1984	Zaher	Mekanizazioa
1985	Sariki	Metrologia



KONDIA. URBAN 2500-CNC mekanizazio-zentroa, zutabe mugikorduna.

1986-1990.

Hazkundera makina-erremintaren arloan, 1989ko krisi urtea gorabehera

Honako gertakari nagusi hauek izan ziren **nazioartean**: Aniztasun politikoa eta sindikala onetsi zuten Polonian, eta Errumaniako eta Txekoslovakiako erregimen komunistak erori ziren 1989an. Golkoko gerra izan zen, eta bi Alemaniak batu egin ziren 1990ean.

Espanian, PSOEk berriro ere estatuko hauteskundeak irabazi zituen 1986an, eta Espainiako estatua EEEn sartu zen. ETAk atentatua egin zuen Hipercorren (Bartzelona) 1987an: 21 hildako izan ziren. PSOEk irabazi zituen Espainiako hauteskunde orokorrak, eta ETArekin eta Espainiako gobernuaren arteko elkarrizketak izan ziren Argelen 1989an.

Euskal Herrian Ardanzaren bigarren gobernu hasi zen 1987an, EAJren eta PSEren arteko koalizioarekin. EAEko hauteskundeak irabazi zituen berriaz EAJk 1990ean. Euskaldunon Egunkaria argitaratzen hasi zen, eta 2003an itxiarazi egin zuten, epailearen aginduz.

Elgoibarren populazioak behera egin zuen bost urte horietan, eta 287 lagun galdu zituen. 1987a salbuespena izan zen, izan ere, herrian 1986an baino hemezortzi lagun gehiago zeuden.

Urtea	Biztanleak
1986	12.346
1987	12.364
1988	12.274
1989	12.193
1990	12.059


Honako alkate hauek izan zituen Elgoibarrek garai horretan: Luzio Beitia (1983.05.23-1987.06.30) eta Jose Ignazio Elkoro-Iribe (1987-1995).

Aurreko urteetan udal aurrekontuetan hazkunde handia izan zela esan genuen, eta joera mantendu egin zen bost urte horietan ere. Nabarmena da 1987tik 1990era izan zen igoera, 560.500.000 pezetatik 1.150.000.000 pezetara bitartekoa.

Halaber, 1985etik gaur egun arte, aldaketa handiak izan dira Elgoibarko bizimoduaren arlo guz-

tietan, baina esan daiteke aldaketak hirigintzan nabari direla gehien. Izan ere, Maala, Iñiguez Karkizao, Altzola, Santa Ana, Santa Klara eta Azkue (San Roke) inguruetan, besteak beste, etxebizitza asko eraiki dira, eta kale-auzo batzuen fisonomia guztiz aldatu da. Askoz etxebizitza gehiago dugu hogeita bost urte ondoren, baina 1.700 biztanle inguru gutxiago ditu Elgoibarrek. Horretaz gain, azpiegitura garrantzitsuak eraiki dira, eta Elgoibar hiri modernoa dugu: Osasun zentroa, Zaharren egoitza, Kiroldegia- ren erreforma, Mintxetako kirol-gunea, Musika Eskola, Lekueder parkea, Maalako parkea. Eta industrialdeak hiriaren kanpoko aldean eta gune erresidentzialetatik kanpo daude, XX. mendeko 70eko hamarkadan hasitako politikari jarraituz.

Hauexek ditugu egun industrialdeak: Aizkorri, Urazandi, Albitzuri, Olasope (Sigma), Olaso, Sallobente, Arriaga, Ballibar, Ibaitearte, Lerun eta Oleta. Hezkuntza mailan ere garrantzi handiko udalerrria dugu Elgoibar, eta gazte asko datoz inguruko herrietatik gure bigarren hezkuntzako ikastetxeetara (DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa) eta IMHko txandakako ingeniartzara. Eta esandakoaz gain, enprestatoko langileek ere ikastaroak egin ohi dituzte Mekan eta IMHn. Bestalde, tertziarizazio fasean eta kontsumo-gizartean murgildu ziren elgoibartarrak 90eko hamarkadan.



ETXE-TAR. Zenbakizko kontroladun mekanizazio-zentroak, lineak eta sistema malguak, automozioaren, energiaren, gasaren eta petrolioaren arloko industriarako.

1986tik 1990era arteko bost urte hauetan espainiar estatuko ekonomiaren esnaera izan zen, 1986an Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan (gaurko Europar Batasuna) integratu zenean (barne produktu gordinaren %5 inguruko hazkundea eman zen urtero). Abagune baikor honetan gure makina-erremintaren fabrikatzaileek 2,5 aldiz biderkatu zuten ekoizpena. Sektorea berrantolatu egin zen, eta plantak, instalazioak eta taldeak berriitu egin ziren. Espainiako estatuko makina-erremintaren barne kontsumoa bikoiztu egin zen, eta kanpoko eskaria ere oso dinamikoa bihurtu zen, batik bat, europar merkatuena. Era berean, alor honetako enpresek finantza eta teknologia mailan izan zuten sendotzeak garrantzi handia izan zuen. Bost urte hauetan Eusko Jaurlaritzak ere laguntzak eman zituen PREren (Enpresa eta industria sektoreak birbultzatzeko plan berezia) bitartez edo inbertsioak finantzatzeko abalak emanez. Horretaz gain, Ikerketa eta Garapenerako ere (I+D gaztelaniaz) laguntzak eman zituen.

Laurogeiko hamarkadan, elektronikaren iraultza berretsi zen, eta zenbakizko kontrola ezarri ondoren, ohiko erreminta-makinak zaharkituta gelditu ziren. Honen harira, Deba Taldeak, bertako kooperatiba-elkarteen (Danobat, Goiti, Izarraitz, Lealde, Ona-Pres, Orta, Soraluze eta Txurtzil) laguntzaz, *Ideko* zentro teknologikoa sortu zuen Elgoibarren 1986ko hasieran. Era berean, beste hainbat enpresak (Atera,

Anayak, Etxe-tar, Tekniker, Zayer, Mebusa, Jator, Ona Electroerosión, Sacem, Ibarria, Lagun, Ladarasa, Geminis, Doimak, Estarta y Ecenarro, Juaristi eta CMZ) ere *Fatronik* zentro teknologikoa jarri zuten martxan Elgoibarren urte berean, euren tailerretan ere ikerketa eta garapena bultzatzeko. Gogoratu behar dugu, sei urte lehenago, Tekniker zentro teknologikoa sortu zutela Eibarren, Armeria Eskolaren babesean, helburu berarekin.

Makina-erremintak eraikitzeke enpresarik ez zen sortu bost urte hauetan, baina bai, enpresa laguntzaileak:

Sorrera urtea	Enpresa	Gaia/ Espezialitatea
1986	Lili	Karenatzea
1986	Irudex	Karenatzea
1987	Lan-Bat	Mekanizazioa
1987	Cometel	Karenatzea
1988	Egondo	Karenatzea
1989	Sisfle	Mekanizazioa
1989	Teknikalde	Karenatzea
1990	Goitek (Ibermática, 2006)	Industriari aplikatutako informatika



DANOBAT GROUP – Kanpoko artezteko makina zilindrikoa, gama ertainekoa eta astuna, mahai mugikorra duena. Transmisiorako, sorgailu elektrikoetarako, industria aeroespazialerako, trenetarako, inprimategietarako, laminaziorako, automoziorako, eta ibilgailu industrialetarako piezak egiteko erabiltzen da, baita ingeniari mekanikoko aplikazioen ardatzak egiteko ere.

1991-1994. Krisia

Lau urtekoa, motza baina bizia. Hona hemen, krisiak iraun zuen bitartean, izan ziren gertakari garrantzitsuenetarikoz batzuk:

Nazioartean, Jugoslavia desegin zuten gatazkak hasi ziren, eta SEBS (URSS) desegin egin zen 1991n. Europar Batasunaren ituna sinatu zuten, Maastrichten 1992an. Nelson Mandela Hegoafrikako lehenengo presidente beltza izan zen 1994an. Joko Olinpikoak izan ziren Bartzelonan 1992an.

Espainiako estatuan, PSOEk irabazi zituen berriro Espainiako hauteskunde orokorrak 1993an. **Euskal Herrian,** *Euskaldunon Egunkaria* argitaratzen hasi zen 1990ean. EAJk, EAK eta EEK koalizio gobernu osatu zuten 1991ko otsailan. Irailean, bestalde, EA koaliziotik irten zen eta PSE sartu. Alii (UPN) Nafarroako gobernuko lehendakari aukeratu zuten. EAJk, EAK eta PSEk koalizio gobernu berria osatu zuten 1994an, Ardanza lehendakaria zelarik. Sanz (UPN) aukeratu zuten Nafarroako gobernuko lehendakari.

Ondokoak dira, **Elgoibarren,** garai hartan izan ziren datu demografikoak:

Urtea	Biztanleak
1991	11.730
1992	11.639
1993	11.548
1994	11.359

Agerikoa da industriaren krisiak biztanlerian ere eragin zuela; izan ere, Elgoibarrek lau urtetan 371 biztanle galdu zituen.

Jose Ignazio Elgoro-Iribe izan zen alkate 1987tik 1995era, eta udal aurrekontuak 88.973.392 pezetatik 1.155.000.000 pezetara igo ziren.

Makina-erremintaren industriak mundu mailako atzeraldi ekonomikoaren eragina izan zuen, 1991tik aurrera. Golkoko gerra, automobilgintzaren industriaren krisia eta Europako ekialdeko herrialdeen hondamendi ekonomikoa batera izan ziren, eta horiek, makina-erremintaren munduko kontsumoaren jaitsiera handia (%8,5) ekarri zuten. Jaitsiera horrek, batik bat, Europan eta Japonen eragin zuen. Espai-

niako estatuan makina-erremintaren ekoizpena %24 jaitsi arren, sektore honi bultzada emateko bitartekoak jarri zituzten: enpresa-taldeen egitura indartu eta ikerketarako eta garapenerako jarduerekin jarraitu zuten irmotasunez. Hala, enpresetan kalitate-sistemak jarri zituzten, eta kanpoko merkatuetan oihartzun handia izan zuten. Munduko egoera lehiakorrera egokitzeko urrats erabakigarria izan zen, 1991ko irailan, Elgoibarko Makina-Erremintaren Institutu esperimentalala (IMH) martxan jarri izana.

Garai honetako egoera honako hau izan zen: 1991n, Espainiako makina-erremintaren fakturazioaren %24,6 eta esportazioaren %16,5 jaitsi ziren 1990 urtearekin alderatuta. 1992an, fakturazioaren %20 eta esportazioaren %14,4 jaitsi ziren aurreko urtearekiko. 1993a urte makurra izan zen Munduko zein Espainiako estatuko makina-erremintaren industriarako, eta 1986 arte atzera egin behar da zifra horiek aurkitzeko: 1990ean lortutakoaren %63, alegia. Izan ere, 1993an, Espainian ekoizpena %18 eta esportazioak %6,4 jaitsi ziren, hurrenez hurren. Azkenik, 1994an, aurreko hiru urteetako beheko joeraren bukaera izan zen: %20 igo zen ekoizpena eta %58 esportazioa. Hala ere, 1990eko ekoizpenaren %42 eta esportazioen %24 besterik ez ziren oraindik. Lehenengo hiru urte horietan izandako krisi sakonak Espainiako estatuaren enpresen %25 eta enpleguen %30 galarazi zituzten.

Laurogeita hamargarren hamarkadako lehen-dabiziko hiru urteetako krisi handiari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak 3R programa izeneko laguntzak eman zituen erreskaterako, berregituraketarako eta lan arloko berrorientaziorako. Halaber, itzultzeko beharrik ez zuten diru-laguntzak eman zituzten behin betiko itxi ziren enpresetako langileentzat. Eta “Gestio teknologikoa eta berrikuntza” programaren bitartez nahiz babestutako teknologia-zentroaren bidez I+Grako eman ziren diru-laguntzak ere oso garrantzitsuak izan ziren. Adibidez, Danobatek PDM delakoan (Product Data Management) oinarritutako gestio-sistema martxan jarri zuen 1994an.

Honako enpresa berri hauek sortu zituzten elgoibartarrek herrian bertan nahiz inguruan, bertan zoru industrialik ez zegoen kasuan:

Sorrera urtea	Enpresa	Gaia/Espezialitatea
1991	Inca Industria	Zinta-zerrak
1992	Fanuc	Kontrol numeriko japoniarra
1992	Gadía, S.A. (Gorosabel Taldea)	Uraren bidez ebakitzeko makinak
1993	MTE machine tool engineering, s.a.	Fresatzeko makinak
1994	Goratu, S.A.	Tornuak eta fresadorak

Elgoibarren 1982an makina-erremintako 18 enpresa zeuden, eta 2.130 lanpostu eskaintzen zituzten. 1994an, berriz, 25 enpresa zeuden, eta hauek Espainiako enpleguaren eta ekoizpenaren %30era iritsi ziren.

1995etik 2012ra arteko testuingurua

Nazioarteari dagokionez, hamabosten Europa sortu zuten, 1995ean, Suedia, Finlandia eta Austria Europar Batasunean sartu ondoren. Joko Olinpikoak izan ziren Sidneyn 2000an. 2001ean, berriz, New Yorkeko Dorre Bikien aurkako atentatua izan zen, eta bonbardaketak hasi zituen AEBek Afganistanen aurka. Euroa ezarri zuten EBko hamabi estatutan 2002an. Iraken aurkako gerra hasi zuten AEBk eta beste hiru estatuk, eta Atenasko Joko Olinpikoak jokatu zituzten 2004an. Era berean, Hogeita bosten Europa sortu zuten, 2004an EBn beste hamar estatu sartu ondoren. Joan Pablo II.a aita santua hil egin zen, eta Benedikto XVI.a aukeratu zuten 2005ean. 2007an Bulgaria eta Errumania sartu ziren EBn. Kuban Raul Castrok ordezkatu zuen anaia Fidel 2008ko otsailaren 24an. Putin aukeratu zuten Errusiako presidente 2008ko martxoaren 2an. Munduko burtsen krisia izan zen 2008ko urriaren 10ean (Espainiakoak IBEXen %10 galdu zuen egun bakarrean), urte hartako finantza-krisiaren testuinguruan. Barack Obama EEBBeko presidente aukeratu zuten 2009ko urtarrilaren 20an. Munduko hogei ekonomia garrantzitsuen agintariek, Londresen bildurik, bilioi dolarreko funtsa sortu zuten 2009ko apirilaren 2an, krisiak jota zeuden herrialdeei lagundu ahal izateko. General Motorsek, munduko automobilen bigarren fabrikatzaileak, porrot egin zuen 2009ko ekainean. Angela Merkelek eta CDU/CSU koalizioak irabazi zituzten Alemaniako hauteskundeak 2009ko irailaren 27an. NBEko (ONU) batzar nagusiak, EEBBk Kubari egindako enbargo gaitzetsi zuen berriro 2009ko urrian. Aldaketa klima-

tikoari buruzko XV. konferentzia izan zen Copenhaguen 2009ko abenduaren 7tik 18ra bitartean.

Grezian krisi ekonomikoa larriagotu zen, eta bazirudien, krisia Europa guztira zabalduko zela 2010eko udaberrian. EEBBek Iraketik erretiratu zituen azken tropak 2011ko abenduan, bederatzi urte gatazkan jardun ondoren. EBko gailurra izan zen Bruselan 2011ko abenduaren 9an, euroa salbatzeko eta krisi larriari aurre egiteko asmotan; eta hiru hilabete beranduago, austeritate-zerbaren ituna sinatu zuten hondamendi ekonomikoa saiheste aldera. François Hollande sozialista aukeratu zuten Frantziako errepublikako presidente 2012ko ekainaren 5ean, eta gehiengo absolutuz gobernatzen du. Londreseko Joko Olinpikoak izan ziren 2012ko udan. 2012ko azaroaren 14an, greba orokorra izan zen Europako hogeita hiru estatutan, baita Espainian ere. Benedikto XVI.ak uko egin zion Aita Santu izateari 2013ko otsailaren 28an, eta Bergoglio argentinarra aukeratu zuten kardinalak martxoaren 13an. Frantzisko Aita Santu josulagunak arnas berri bat eman dio eliza katolikoari hainbat gaitan, eta Vaticanoarekin ezkor ziren zenbait itxaropenez bete ditu.

PPk irabazi zituen **Espainian** hauteskunde orokorrak 1996an eta Aznar aukeratu zuten presidente CIUren, EAJren eta Kanariar Koalizioaren laguntzarekin. Tomas y Valiente, auzitegi konstituzionaleko buru ohia, hil zuen ETAk. PPK irabazi zituen Espainiako hauteskunde orokorrak, autonomikoak eta baita europarrak ere 1999an. Prestige itsasontzia hondoratu egin zen Galiziako kostaldean 2002an.

191 hildako izan ziren 2003ko martxoaren 11n Madrilen izandako atentatu terroristan. PSOEk irabazi zituen hauteskundeak Espainian, eta espainiarrek Europako Konstituzioa onartu zuten 2003an.

2005ean Espainiako Kongresuak baimena eman zuen gobernuak ETArekin elkarrizketa izateko, eta ETak su-etenari ekin zion 2006ko martxoaren 24an. Katalunian hiru alderdiren arteko (PSC, ERC eta ICV) gobernuak osatu zuten 2006an. ETak 2007ko ekainaren 5ean su-etenaren bukaera adierazi zuen. PSOEk irabazi zituen 2008ko martxoaren 3ko hauteskundeak. Espainia Eurokopako futboleko irabazle izan zen 2008ko ekainaren 29an.

Urte horretan bertan, arazo handiak sortu ziren finantza-sisteman (krisi ekonomikoaren testuinguruan): zenbait kutzak eta banketxek kapitalizazio eta finantziario arazoak izan zituzten. 2009ko azaroan Espainian sortu zen elektrairindarraren erdia eolikoa izan zen. Espainiako estatuan krisi ekonomiko larriaren testuinguruan, futbol-selektzioak munduko txapela irabazi zuen 2010eko uztailean. Greba orokorra izan zen 2010eko irailaren 29an. Zapatero Espainiako gobernuko presidentek ituna sinatu zuen EAJ-PNV eta Kanariar Koalizioarekin 2010eko urriaren 10ean. PPK irabazi zituen hauteskundeak 2011ko azaroaren 20an, eta Rajoyk gehiengo absolutuz gobernatu ahal izan zuen. Hezkuntzaren eta Osasungintzaren aurrekontuetan murrizketa handiak iragarri eta Bankia banketxea nazionalizatu zuen Rajoyk 2012ko maiatzaren 9an. Murrizketa haiek zirela-eta, "Haserretuen" protestak izan ziren hiriburu askotan.

Euskal Herriari dagokionez, Bizkaiko Labe Garaiak itxi zituzten 1996an, eta haien ordeztan, Aceriales Compactos de Bizkaia enpresa sortu. Ermuko zinegotzia zen Miguel Angel Blanco hil zuen ETak 1997an. Bilboko Guggenheim museoa zabaldu zuten. PSE Eusko Jaurlaritzatik irten zen

1998an. Lizarrako ituna sinatu zen irailean, eta ETak su-eten mugagabea iragarri zuen. *Egin* egunkaria itxiera judiziala nozitu zuen. EAJk eta EAK koalizio-gobernuak osatu zuten Ibarretxe lehendakariarekin 1999an. *Gara* egunkaria argitaratzen hasi ziren. Bilboko *Euskalduna* eta Donostiako *Kurtaal* jauregiak inauguratu zituzten. ETak su-etenaren bukaera jakinarazi zuen, eta Buesa eta Lluch sozialistak hil zituen hurrengo urtean. Elektra enpresako bi langile hil zituen ETak 2001eko otsailean. Ibarretxe plana onartu zuen EAEko Legebiltzarrak 2003an. ETak lau atentatu odoltsu burutu zituen Euskal Herrian 2008an, eta beste hiru, 2009an (hauetako bi, Espainian). Bestalde, ekintza armatuen etena iragarri zuen 2010eko irailaren 5ean, eta erabateko su-etena, urriaren 20an. EAEko lehendakari aukeratu zuten Patxi Lopez 2009an, PPren eta alderdi politikoen legearen laguntzarekin. Bilduk udaletako eta Batzar Nagusietako hauteskundeetan parte hartu zuen, 2011ko maiatzaren 5ean Konstituzio-auzitegiak zerrendak onartu ondoren. Hauteskunde hauetan honako emaitzak izan ziren hego Euskal Herrian: EAJ-PNV, Bizkaiko Diputazioko buru; Bildu Gipuzkoako Diputazioko buru; PP Arabako Diputazioko buru; eta UPN Nafarroako foru-gobernuko buru.

Honen aurretik, PSk (Alderdi Sozialista) irabazi zituen hauteskundeak Frantzia eta Ipar Euskal Herrian ere bai. Krisi ekonomikoa eta gobernuak hartutako neurriak zirela-eta, bost greba orokor izan ziren Hego Euskal Herrian: 2009ko maiatzaren 21ean, 2010eko ekainaren 29an, 2011ko urtarrilaren 11n, 2012ko martxoaren 29an eta irailaren 26an, hain zuzen ere.



DANOBATGROUP – Puntzonatzeko makinaren sistema malgua, zenbakizko kontroldua, laser bidezko ebaketarekin konbinatua. SILVER 30 eta SILV formatuko modeloak.

Elgoibarri dagokionez, lehendabizi, garai honetako datu demografikoak emango ditugu:

Urtea	Biztanleak
1995	11.204
1996	10.989
1997	
1998	10.784
1999	10.750
2000	10.702
2001	10.667
2002	10.614
2003	10.637
2004	10.524
2005	10.538
2006	10.690
2007	10.891
2008	11.051
2009	11.220
2010	11.324
2011	11.360
2012	11.438

Beraz, ikus daiteke herriko biztanleria jaitsi egin zela 1995 (11.204 biztanle) eta 2004 urteen artean (10.524). Urte horretatik aurrera, biztanle kopurua pixkanaka igotzen hasi zen, 2012an 11.438 biztanlera iritsi arte. 2009 urtean, 1995 urtean hasi zen joera irauli egin zen. Jaiotze-tasa baxua izan zen gure herriko biztanleria jaitsi izanaren arrazoia. Beste alde batetik, XXI. mendeko lehendabiziko bost urteetatik aurrera gure herriko biztanleriak izan duen hazkunde, batik bat, immigrazioaren ondorioz gertatu da; hala ere, esan, hazkunde-tasa zertxobait hazi dela. 2012 urtean 812 atzerritar bizi ziren Elgoibarren (populazioaren %7,09).

Honako alkate hauek izan zituen Elgoibarrek garai honetan: Guillermo Garate (1995-2003), Marivi



LANBI – Sektore automatizterako osagaiak mekanizatzeke zelula multiflexiblea.

Agirregomezkorta (2003-2007) eta Alfredo Etxeberria (2007tik aurrera).

Udal-aurrekontuek honako zifra hauek izan zituzten: 1995ean, 1.093.000.000 pezeta; 2000an, 1.265.000.000 pezeta; 2004an, 13.115.406,29 euro; 2008an, 21.514.293,98 euro; 2009an, 18.743.600,82 euro; 2010an, 16.251.311,07; 2011n, 15.409.935,76; 2012an, 14.762.028 euro; eta 2013an, aurrekontu bateratua: 14.618.059 euro. Horrela, bada, 2008ra arte aurrekontuak igo egin baziren ere, data horretatik aurrera jaisten joan dira urtez urte, krisiaren eraginez, zalantzarik gabe.

Arestian esan dugun moduan, hirigintza plana garatzen jarraitu du Elgoibarrek XX. mendearen bukaeratik XXI. mendeko lehenengo hamabi urteetara arte. Eta irisgarritasunari garrantzi handia eman izan dio, hau da, kasko, kale eta auzoen arteko lotura eta bide egokiak izateari.

Halaber, asoziazionismoak eta aisialdiak garrantzia handia dute gure herrian. Izan ere, kultur, musika zein kirol anitz egiteko elkarteak ditugu. Hala ere, badago hobetzerik gure ingurunea erakargarriago, osasungarriago eta sostengarriago egiteko, eta elgoibartarrok gure herriarekiko atxikimendu handiagoa izateko. Eta aipamen berezia merezi dute gure hizkuntzak eta euskal kulturak. Eragile guztiok (lan mundua, erakundeak, aisialdiko eta kirol taldeak, familiak eta norbanakoak) inplikatu behar dugu euskaraz bizi ahal izateko eta gure hizkuntzaren erabilera suspertzeko, hurrengo urteetan, euskararen erabilera heren batetik ahalik eta maila gorenera iristeko.

Makina-erremintaren bilakaera 1995etik 2012ra arte:

• **1995etik 2000ra.** Sei urtez jarraian izan zen hazkunde etapa honek enpresen saneamendu ekonomikoa ekarri zuen. Izan ere, munduan zein Espainian susperraldi geldoa baina irmoa ematen hasi zen 1995ean. Espainian ekoizpenaren hazkundea %37koa izan zen aurreko urtearekiko, baina, 1990ekoarekin erkatuz %20 beherago gelditu zen. Hala ere, enplegatuak %30 gutxiago izan ziren. 1996an %23, 1997an %17, 1998an %18, 1999an %7,5 eta 2000an %2,2 hazi zen ekoizpena aurreko urteekin alderatuta. Esportazioei dagokionez, 1995ean, %40, 1996an, %33, 1997an %10,3, 1998an %11, eta 2000an %1,4ko hazkundeak izan ziren aurreko urteekiko; 1999an, ostera, 0,2ko galera izan zen aurreko urtearekin alderatuta.

Era berean, %65 eta %52 artekoa izan zen, bost urteotan, esportazioaren eta ekoizpenaren arteko aldea, eta Espainiako makina-erremintaren sektorea herrialde esportatzaile nagusien arteko 11. eta 8. postuen artean egon zen epe honetan.

• **2001etik 2004ra.** Eskaria jaitsi egin zen lau urte hauetan. 2001ean eta 2002an nazioarte mailako dezelerazio ekonomikoa izan zen, eta ziurtasunik gabeko guneak izan ziren herrialde industrializatuetan, Nueva Yorkeko atentatuaren ostean eta Afganistango gerraren eraginagatik. Hala ere, lehenengo urtean Espainiako estatuko makina-erremintaren ekoizpenak goia jo zuen, ordura arteko zifra handiena lortu zuen, eta urte hartako igoera %6,2koa izan zen. Esportazioak, aldiz, %10,1 hazi ziren. Hurrengo bi urtetan krisia Espainian nahiz Euskal Herrian nabaritu zen, eta ekoizpena %7,6 eta %10,4 jaitsi ziren, hurrenez hurren. 2004an munduko ekonomia %5,1 hazi zen, zailtasunak izan arren: petrolioa eta lehengaiak garestitu egin ziren, eta euroaren balioa handitu egin zen dolararekiko. Urte horretan Espainiako estatuko makina-erremintaren ekoizpenak oso igoera txikia izan zuen, hutsaren hurrengoa, (%0,14), eta horri esker, aurreko bi urteetako jaitsiera geldiarazi egin zen. 2003an eta 2004an esportazioak ere jaitsi egin ziren %15,4 eta %9,4, hurrenez hurren. Azken urte horretan esportazioa ekoizpenaren %51 izan zen, eta munduko rankinean hamargarren tokia eskuratu zuen.

• **2005etik 2008ra.** Susperraldia izan zen lau urteren buruan. Munduko ekonomiaren hazkundea izan zen lau urteotan: %4,3, %5,4, %4,9 eta %3,2, hurrenez hurren, aurreko urteekiko betiere; eta Espainiako ekonomiak ere igoera izan zuen: %3,4, %3,9, %3,8 eta %3,2, hurrenez hurren. Beraz, gure makina-erremintak aldeko izan zuen abagune ekonomikoa; sektore honen ekoizpena ere hazi egin zen-eta lau urteotan, eta honako ehuneko hauek izan zituen: %14, %10,3, %17,9 eta %13,9, hurrenez hurren. Espainiako estatuan, aldiz, hazkunde apalagoak izan ziren: %10,1, %8,23, %7 eta %0,9, hurrenez hurren, aurreko urteekin alderatuta.

Esportazioari dagokionez, 2005ean igoera ikusgarria izan zen, eta hurrengo hiru urteek %11,9ko, %11,4ko eta %18,4ko hazkundeak izan zuten. Azken igoera hau ere harrigarritzat jo genezake. Espor-tatutakoa ekoizitakoaren %55 izan zen lau urteotan; eta 2008 urteko esportazioa azpimarratzekoa da, %69,7ra iritsi baitzen. Azken urte honetan munduko makina-erremintaren esportatzaileen bederatzigarren tokian egon zen.

• **2009tik 2012ra.** Ekonomiaren gainbehera izan zen. Krisi gogorraren garaia dugu haxe. Munduko ekonomiak %0,8 (ekonomia garatueneke %3,2) egin zuen behera 2009an, eta Espainiakoak, berriz, -%3,6 urte berean; langabezia tasa, ordea, %18,1ekoa izan zen. Hurrengo hiru urteetan ere Espainiako estatuak BPG (PIB) negatiboa edo zerotik gertukoa izan zuen: %0,1, %0,7 eta -%1,4, eta langabezia tasa handiak: %20, %21 eta %25. Makina-erremintaren ekoizpenari dagokionez, 2009an %29,5 jaitsi zen eta 2010ean, aldiz, %15,2; baina hurrengo bi urteetan hazkundea nagusitu egin zen: %28 eta %10, alegia. Esportazioak jaitsi egin ziren lehenengo bi urteetan (-%25 eta -%12,3), eta hazi egin ziren 2011n eta 2012an (%51 eta %13). 2011ko datua deigarria izan arren, aurreko bi urteetako galeren ondoren datorrela ulertu behar dugu; izan ere, bien artean %37ko galera izan zen. Esportazioak oso handiak izan ziren ekoizpenekiko: %74,1, %76,6, %90 eta %92 hurrenez hurren; eta 2010ean mundu mailako makina-erremintaren fabrikatzaileen hamargarren tokian egon bazen ere, beste hiru urteetan bederatzigarrenean izan zen.



DOIMAK - Zenbakizko kontrol-dun artz-teko makinak (ardaz-dunak / engranajedunak / ezpeka-ardaz-dunak), kanpoko hariz-taketak egiteko. RER-SP, serie astuna, 600 mm-ko ibil-bidea.

Lan hau bukatzerako orduan, AFMk ondokoa iragarri du bere webgunean: makina-erremintaren sektoreak, 2013 urtean, aurrekoan baino %5,6 gehiago fakturatu zuela. Torrecilla presidentek egiten duen balorazioa positiboa da, eta 2014 urterako, baikor ageri da. Elgoibarko Danobat taldea, halaber, itxaropentsu dago; 2013ko abenduan 103 milioi euroko eskaria lortu baitzuten, tren-industriaren arloan egin zituzten hiru kontraturari esker. Badirudi, hauxe dela, makina-erremintaren arloan Euskadin lortu den transakziorik esanguratsuen.

2013ko udan *Serbusako blogak* AFMko presidente den Torrecilla jaunari egindako elkarrizketa batean, honek zioen Europar Batasuneko hirugarren ekoizlea eta hirugarren esportatzailea zela Espainiako estatua, Alemaniaren eta Italiaren atzetik. Gogora dezagun, 2012an Espainiako estatuan izan ziren salmentetatik %82,2 hego Euskal Herriko enpresek egin zituztela, eta Elgoibar sektore honen hiriburutzat har dezakegula, gure herrian makina-erremintaren kontzentrazio handia dagoelako. Halaber, makina-erremintak tradizio luzea du esportazioari dagokionez, eta 2012an esportazioak ekoizpenaren %80 (makinak, %91,5) baino gehiago izan ziren. 120 herrialdetara esportatu zuten Espainiak, eta honako hauek dira lehenak: Txina, Alemania, Frantzia eta India. Esportazio horren %82,7 hego Euskal Herriko enpresek egin zuten. Bestalde, AFMko idazkari nagusi Xabier Ortueta elgoibartarrak barne merkatuaren eta kanpo merkatuen artean desoreka handia dagoela azaldu zuen, honako hau zioen honi buruz: “gure merkatuan %8 bakarrik saltzen ari gara, eta barne merkatuan %30 eta kanpo merkatuan %70 saltzea gustatuko litzaiguke”.

Torrecilla jaunak gure industriari buruzko honako indargune hauek adierazi zituen aipaturako artikuluan: malgutasuna bezeroen premiei egokitzeko, eta pertsonalizatzeko eta prozesuei eta pieza konkretuei egokitzeko gaitasuna. Eta gaineratu zuen, horrek fabrikatzaile eta bezeroaren arteko elkarlana dakarrela nahitaez. Horren haritik esan behar, makina-erreminta sektoreko gure enpresek fakturazioaren %6 inguru berrikuntza eta garapen teknologikoan inbertitzen dutela, I+Gko (I+D+i) euren unitateen bidez, eta sektoreko zentro teknologiko espezializatuen arteko kooperazioaren bitartez; eta inguruko beste zentro eta entitateen arteko kooperazioari esker ere bai, unibertsitateak esaterako. Gaur egun, sektoreak honako hauekin kolaboratzen du: Aotek, CIC-margune, IK4 (Ideko eta Tekniker), Komiker eta Tecnalia (Fatronik). Honek guztiak makina-erreminta euskal ekonomiaren industria esportatzaile, globalizatu eta berritzaileena dela esatera garamatza.

Edozelan ere, XX. mendearen bukaeratik Elgoibarko makina-erremintaren sektorea lehiakorra da nazioarte mailan. Horrela bada, herrialde ekoizle garatuenekin erka daiteke, berezko teknologiari eta etengabeko berriztapenari dagokionean.

Elgoibarren aldi honetan, industria mailan, izandako gertakaririk kaltegarriena 1995ean Estarta eta Ecnarro (*Sigma*) enpresa ixtea izan zen, ezbairrik gabe. Laurogei urteko ibilbide oparoa egin zuen enpresak. Elgoibartar eta kanpotarren askoren lantoki, eta aldi berean, zenbait enpresa berriren sortzaileen lanbide-eskola izan zen enpresa honek ateak itxi zituen betiko, eta industria-enplegu asko galdu ziren horren ondorioz.



Sigma enpresak 1.416 enplegatu (sukurtsaletakoak barne) zituen 1984an, hauetatik 688 langile Elgoibarren bertan; baina, 1975ean, 2.500, ziren guztira, enpresak berak kaleratu zuen bideo batean egiaztatzen denez. Hala ere, kolpe latz hartatik burua altxatzea lortu zuen herriak, eta goi mailako hamaika enpresa berri sortu dituzte ordudanik. Txikiak dira asko, 25 langile baino gutxiagokoak; nahiz eta, DanobatGroup-ek (400 langile), Goratu S.A.-k (160), eta Etxe-Tar-ek (125) eredu hori aspaldi gainditu. Horrexegatik, ona litzateke, adituen ustez, enpresa txikiak elkartzea, lehiakortasunari berme handiagoz aurre egin ahal izan diezaioten.

GORATU – LAGUN GEMINIS. *GHTM-CNC ataza anitzeko makina, mekanizazio-zentroa eta tornua uztartzen dituena, eta hainbat prozesu egiteko buruak, hala nola, torneatzeko, fresatzeko, artezteko eta neurtzeko buruak automatikoki aldatzen dituena. 8 metroko luzera duten turbinen ardatz konplexuak eraikitzeko erabiltzen da.*

Honako makina-erremintako tailer hauek sortu zituzten 1995etik 2012ra bitartean:

Sorrera urtea	Enpresa	Gaia/Espezialitatea
1995	Kokatu, S.L. Industrias	Makina bereziak
1995	Estarta Rectificadoras, S.Coop.	Artezteko makinak zentro gabeak
2004	Lauko	Makina bereziak
2007	GMTK (Zestoa)	Tornu bertikalak

Halaber, osagaiak egiten dituzten enpresak ere martxan jarri zituzten urte hauetan:

Sorrera urtea	Enpresa	Gaia/Espezialitatea
1995	Spool Sistemas S.A.	Aluminio injektatua fabrikatutako piezak
1995	Aisiator	Mekanizazioa
1998	DMP Zehatz (Mendaro)	Goi mailako pieza bereziak
1999	Novak	Mekanizazioa
1999	Mancisidor	Mekanizazioa
2000	Oreka	Mekanizazioa
2000	Neurri	Mekanizazioa
2002	Fyteibar (Eibar)	Filtroak
2006	2006AVS (Added Value Solutions)	Goi mailako mekanizazioa



MAKINA-ERREMITAREN INSTITUTUA-IMH.

Industriaren eta komunitatearen zerbitzura dagoen teknologia berrikuntzarako ikastetxea da, eta hiru eginkizun nagusi ditu: prestakuntza teknikoa, hedapen teknologikoa eta enpresei zerbitzuak eskaintzea.

Munta handikoa deritzot eta txalotzekoa, gure inguruko kooperatiben multzoko makina-erremintaren arloko enpresek lehiakorrek izateko hartu dituzten erabakiak. Horren adibide dugu 1996ko bukaeran honako enpresa hauek Danobat Taldera biltzeko osatu zuten egitura sektorial estrategikoa (1983an sortu zuten Deba Taldearen ondorengoa): Danobat, Soraluze, Goiti, Lealde, D+S sistemak, Estarta Rectificadoras. Arestikoekin batera, interes ekonomikoko ondorengo bi elkarte hauek ere parte hartu dute: Ideko makina-erremintan espezializatutako zentro teknologikoa eta Danobat Export, esportaziorako partzuergoa. Harrezkero, beste proiektu hauek ere martxan jarri ditu Danobat Group-ek, izan dituen beharrei erantzun ahal izateko: Goimek (2004), D. Railway (2005) eta Danofiber (2009).

Elgoibarko Makina-Erremintaren Institutuak (IMH) sektore honetan duen garrantzia azpimarratzeaz gain, besteak beste, martxan jarri zituen bi proiektu interesgarri ekarriko ditut hona: Proschools eta Asmaola. Lehenengoa, 1998an abiarazi zuen, eta hezkuntza-teknologia transferentzian espezializatutako unitatea zen, mundu guztian lanbide heziketa teknikoko zentroak eta erakundeak sustatzea eta martxan jartzea xede zuena. Asmaola, berriz,


2010ean sortu zuen, eta teknologiaren transferentzia eta berrikuntzako zentroa da, enpresa txiki eta ertainei zuzendurikoa.

Gaur egun, Elgoibarko makina-erremintaren industriaren ekoizpenaren %80 inguru esportaziora bideratzen da; eta gainera, urte askoan lantzen ari diren arloa da. Horretaz gain, gure enpresek atzerrian saltzeko sarea ez ezik, asistentzia teknikoa ere eskaintzen dute, bezeroaren premiei erantzuteko asmotan.

Gaur eguneko elgoibartarrok burdingintzaren ondarea jaso dugu, mende askotan jorratutako tradizioa, eta honi eutsi beharko genioke, belaunaldi gazteek lekukoa jaso eta mundu lehiakor honetako garai berrien erronkei erantzun diezaieten. Horretarako, gure arbasoek eta nagusiek landu zituzten baloreak kontuan izan, eta ekintzaile gazteek dituzten sapa eta jakinduria uztartu behar dira, etorkizuna geure egiteko. Izan ere, makinaren, osagaien, erreminten eta osagarrien ekosistema natural bat eratzen joan da Elgoibarren urte hauetan guztietan, baita hornitzaileena ere: galdategiak, mekanizazioak, automatizazio-zerbitzuak, ikastetxeak, teknologia-zentroak. Sare honek eman dizkie lehiakortasuna eta arrakasta gure proiektuei, eta gainera, etorkizuna eraikitzeko oinarriak jarri ditu .

ELGOIBARKO MAKINA-ERREMINTAREN ENPRESEN SORRERA ETA BILAKAERA, 100 URTEAN, 1914tik 2014ra

CREACIÓN Y EVOLUCIÓN DE LAS EMPRESAS DE MÁQUINA-HERRAMIENTA DE ELGOIBAR, 100 AÑOS, de 1914 a 2014



Iturriak/Fuentes: Carmelo Urdangarin, "Estarta y Ecenarro - 80 años de historia, 1914-1995". Elgoibar 2008; Patxi Aldabaldetrecu: "Makinak eta Gizakiak. Gida historikoa". Elgoibar 2000 • Egileak/Autores: Aficionados de la historia de la máquina-herramienta de Elgoibar



2013-2016 **AFM-AMT**ren katalogoan ageri diren Elgoibarko enpresa fabrikatzaileen markak.

Beste enpresa askok ere osatzen dute Elgoibarko makina-erremintaren sektorea: ZUBACOR, IZPE, GOROSABEL, MASER, KALMAN, FYTEIBAR, EGONDO, LAUKO, IHARDUN, AVS, DMP, DELTECO, modelistak, Etxepe, T Sarasqueta, Emena, Lanbat, SARIKI, FANUC, Metala, Mancisidor, Intxausti, mekanizaziozako eta tratamendurako lantegiak eta pieza egileak, elektrikariak, hidraulika, neumatika eta garraio enpresak, IBERMATICA-GOITEK, ATERA, makina saltzaile eta berriztatzaileak, atzerrian zabalduak kokapenak, eta IMHn sortzen ari diren ekingiza aurrerakoiak.

ARTXIBOAK ETA BIBLIOGRAFIA

• Artxiboak:

- Oñatiko Protokolo artxiboa.
- Elgoibarko Udal artxiboa.

• Bibliografia:

- Ecenarro, L.M.: "Elgoibar. De las ferrerías a la máquina-herramienta...". Kutxa fundazioa. 1996.
- AFM (Asociación de Fabricantes de Máquinas-herramienta): "50 años de AFM (1946-1996)".
- DANOBAT: "50 años de historia". 2004
- Urdangarin, C. y Aldabaldetrecu, F.: "Historia técnica y Económica de la máquina herramienta". CAP, Donostia. 1982.

- Aldabaldetrecu, P.: "Máquinas y Hombres, guía histórica". Elgoibar. 2000.
- Urdangarin, C.: "La fábrica de hierros y aceros San Pedro de Elgoibar. Más de un siglo de historia. 1876-1990". Cámara de Gipuzkoa.
- Urdangarin, C.: "Estarta y Ecenarro "Sigma". 80 años de historia 1914/1995". (2008)
- Elejalde-Erenchun: "Elgoibar". 1970
- Elgoibarko San Bartolome jaietako egitarauak
- www.gipuzkoa.net/metalmecanica
- www.danobat.com
- www.ideko.es
- www.mcc.es